

# B

BARREN

# Gazteluetako zaldunak

Oihana Lopez eta Jurdan Ezenarro,  
'101 Gaztelu' saioko lehiakideak

TOKIKOM



***Etxean, sailkatu  
zaborra gaika***

Eman izena edukiontzi  
marroia erabiltzeko:

943 741 050 edo [arreta@elgoibar.net](mailto:arreta@elgoibar.net)



ELGOIBARKO  
UDALA







# PAGOAGA S.A.

◉ Iturgintza ◉ Berokuntza ◉ Gasa

◉ Igeltseritza ◉ Aroztegia ◉ Proiektuak

[www.pagoagasa.com](http://www.pagoagasa.com)



Dezimo hau aurtengo Gabonetako loteriaren lehenengo, bigarren edo hirugarren zenbaki saridunarekin bat baldin badator, oso-osoan itzuliko dizugu abenduaren 1etik 21era erosi duzun elektrogailuaren dirua, ordainagiria edo faktura aurkezten duzunean.



**619€**

**BALAY  
HOZGAILUA  
KONBINATUA  
3KFE7665 / Erdoilgaitza  
185\*60  
A+  
Chiller kutxa**



**369€**

**TEKA  
INDUKZIO PLAKA  
IR621  
3 eremu.  
Oso-osoan programagarria.**



**729€**

**AEG  
GARBIGAILUA  
L85275XFL  
Erdoilgaitza. 7 kg.  
1200 rpm  
A+++  
Display LCD  
Lurrin-programa dauka**

**BULEGOA ETA ERAKUSKETA**

Pedro Migel Uruzuno, 8 - Tel.: 943 740 512 - Faxa: 943 743 565 - [tienda@pagoagasa.com](mailto:tienda@pagoagasa.com) - [www.pagoagasa.com](http://www.pagoagasa.com)

**BILTEGIA:** San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279 - [taller@pagoagasa.com](mailto:taller@pagoagasa.com)

20870 ELGOIBAR



Inma  
Mugertza

Kaixo, Ander. garapen iraunkorren gezurrari heldu nahi izan diot gaur. Gezurra diot, kontsumoan oinarritutako gure gizartea eta garapen iraunkorra (Jasangarritasuna) ezin direlako uztartu,

nire ustez behintzat. Zer deritzozu? Ingurumen Zientzietan Lizentziatua izanik, seguru letaginak zorroztu zaizkizula, horren gai mamitsua ikusita.

Kontzeptu biak esaldi berean ageri direnean, azala negaldu egiten zait. Behin eta berriz entzuten ditugu agintariak, aho bete hitz, gizarte kapitalista eta jasangarritasuna eskutik joan daitezkeela botatzen, eta ni aho bete hortz! Norbaitek sinisten al du hori oraindik?

Egun bizi dugun dualtasunaz konturatu beharrean gaude gizakiok. Orain arte (eta oraindik ere), ura, fauna, landaretza, lurzorua eta beste baliabide guztiak gizakion nahietara egokitu ditugu. Baina, eskema hori aldatu beharrean gaude, baldin eta gure biziraupena ziurtatu nahi badugu. Hala ere, hori ezin izango da gertatu, naturaren funtzionamendua eta egitura hiritarron kulturen barneratu arte.

### “Kontsumoan oinarritutako gizartea eta garapen iraunkorra ezin dira uztartu”

Garrantzizkoa da hiritar guztiok gure ingurumenari buruzko informazioa izatea, ingurumena izorratzen duten garapen-politikei aurre gin ahal izateko. Hala ere, garrantzi handiagoa du agintariak eta erabakiak hartzen dituztenek ingurumenari buruzko informazioa zentzuz erabiltzeak, horri lehentasuna emanez, herrialde batzuren eta multinazionalen gainetik.

Ikuspegi berriak norabide-aldaketa berri bat eskatzen du, izan ere ingurumen-arazo gehienak ekoizpen-sistema jakin batzuetatik datoz. Garapena, eutsiezina izango da baliabide naturalen erabilera eraberritze-tasaren gainetik dagoen bitartean.



Ander  
Izagirre

Egia esan, garapen iraunkorren kontua primeran etorri zaie hainbat politikariri, hitz polit horren itzalpean, ingurumenaren aurka berdin-berdin jarraitzeko aukera dute eta. Politikariek askotan definizioa –etorkizuneko belaunaldiek beren beharrianak asetzeko ahalmena oztopatu gabe, gaur eguneko beharrianak asetzen dituen garapena– ahazten dutelakoan nago. Badirudi, ingurumenaren aldeko kutxu berdea ematearekin dena egina dagoela, etorkizuneko belaunaldien beharriaz guztiz ahaztuta.

### “Elgoibarren bertan baditugu aurpegia garbitzeko balio duten programa ‘berde’ batzuk”

Ados nago, Inma, bizi garen gizarte mota hau ez dela iraunkortasunarekin bateragarria. Baliteke, eta hala gustatuko litzaidake, benetako garapen iraunkor bat gauzatu ahal izatea, baina jakitun izan gaitzen gaur egungo egitura sozio-ekonomikoaren aldaketa sakon bat eskatzen duela horrek.

Eta behin eta berriz ingurumenari buruz bueltaka ari garela uste dutenez, jakin ezazue, garapen iraunkorrak, ingurumenaren babesa kontuan hartzen duen bezala, gizakion arteko desberdintasun sozio-ekonomikoak amaitzea ere eskatzen duela. Eta hau lortzera bideratuta ote daude gaur egungo politikak? Bai zera!

Azkenik, gainetik bada ere, testuinguru antzerakoa duten beste nahi beste “iruzur” topa genitzakeela aipatzea nahiko nuke. Adibidez, Ingurumenaren Nazioarteko Eguna, “bio” aurrizkia duten milaka hitz, energia berriztagarrien garairantz goazen kontua, produktu ekologikoen izenean aurrera eramaten diren hainbat produkzio mota eztabaidagarri... Elgoibarren bertan, baditugu aurpegia garbitzeko balio duten programa “berde” batzuk...

Azken finean, errealitatea ezkutatzeko izen polit bat asmatzea da gakoa.

#### I. URTEURRENA

## MARIA LETE GABILONDO



2012ko abenduaren 4an hil zen. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, abenduak 14, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokiari. Joango zaretenoi eskerrak aldeztatik.



# Barren

Kalebarren plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - Faxe: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)

**BARREN**ek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enantzikun.

KOORDINATZAILEAK Ainhoa Andonegi, Ainara Argoitia KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio MAKETATZAILEA Zaloa Arnaiz ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA Aitor Lauzirika ADMINISTRARIAK Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro KOLABORATZAILEAK Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga, Danele Sarrigarte, Mikele Olaizola, Esti Gonzalez, Miren Vives, Maitane Mendikute, Janire Elordi INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.860 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:

ELGOIBARKO IZARRA 50  
KULTUR ELKARTEA

Laguntzaileak:



ELGOIBARKO UDALAK

elgoibar  
bizi-iruzkia



MENDIARRO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



## GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzikun. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com).

### Euskararen Eguna

Asteartean ospatu genuen euskararen eguna, baita ondo ospatu ere. Eguna paregabea izan zen guretzat. Baina bereziki momentu batek egin zuen guretzat berezi egun hori. Herri Eskolako haurrak disko festa izan zuten Lekuederren, eta testu bat irakurri genuen, irakasle, guraso eta haurren artean. Haurretako bat, euskaldun berria zen, gurera urrutitik duela bi urte etorria, behin irakurketa egin ostean, ume horren aita, gure elkarteko guraso-arengana gerturatu zen, bere alaba gurekin hezten dugula eskertzeko! Hura bai momentua, hunkituta, bihotza ikutua utzi zigun urrutiko herrialdetik etorritako guraso horrek. Euskara irakasteaz gain, gurean euskara maitatzen ere erakusten dela erakutsi zigun eskertza horrek. Kanpotik etorri eta gurek besoak zabalitzen badizkiegu, euskara bereganatzen dutela erakutsi digute, eta hori mundiala da! Euskara mundiala den bezalaxe!

N.O. ☺

### Bosgarren edukiontzia-aren emaitza txarrak

Urte eta piku pasa da Elgoibarren bost edukiontzien bidezko zabor-biltze sistema jarri zenean. Gaika batu diren hondakinak gora egin dute geroztik, %20etik ia %30era. Ehuneko hori igoztearen arrazoiak hondakin organikoetan dago.

Emaitza ona dela pentsatu dezakegun arren, egoerari so egiten badiogu, emaitza benetan txarra dela konturatuko gara. Zein da egoera? Gipuzkoan zabor-tegiak gainezka daudela, eta berriak irekitzea (eta zer esanik ez erraustegian erretzea) atentatu ekologiko, territorial eta sanitarioa denez, hondakinak ahalik eta gehien birziklatzeari ekin behar diogula. Baina horretarako aurrebalantza bat dago: hondakinak bildu aurretik, gaika bananduta egon behar dira.

Udalak 2014rako helburu bat jarri zuen: Elgoibarren sortzen den hondakinen %50 jasotzea gaika. Baina emaitza errealak oso urrun daude xede horretatik, eta ez da harrizkoa. Bost edukiontzien sistemak emaitza antzekoak ematen ditu toki guztietan: Zarautzen, %29; Beasainen, %31; Aretxabaletan, %27, etab. Gurean, gainera, emaitzak jaisten ari dira, ez gara %30era iritsi, eta %27,6ko batez bestekoan gaude. Kontzientzia-zioren aldeko kanpainekin ezin da dena lortu,

aurretik biltze sistema egoki bat jartzen ez bada.

Eta badago biltze sistema eraginkor eta txukun bat: atez atekoa. Hilabete gutxitan, jarri den toki guztietan %80tik gorako emaitzak eman ditu. Hori existituta bosgarren edukiontzia-aren alde egitea birziklatzearen kontra eta betiko ereduaren alde egitea da. Gauzak garbi.

Elgoibar Zero Zabor ☺

### Agur Nelson Mandela

Iraultzaile batentzat ez dago bere kontzientzia baino epaile zorrotzagoarik, ezta eredu ematea bezain arma zorrotzik.

Gaur argi geratzen da bakearen etsaiek askatasunaren, herrien berdintasunaren eta gizakion etsai berdinak direla.

Euskal Herri-rik gauza bakarra esan nahi dizugu: zauden tokian zaudela egin gurekin irri, borrokak jarraitzen duelako.

Agur Madiba. Eskerrik asko, eta irabazi arte!

Logroño-ko espetxetik, Arnaldo Otegi ☺

### Ez dut justifikaziorik topatu

Galdetu didate nork antolatu duen hori, nori okurritu zaion lehenengo Tele5 kateko bi saio kutreenetako protagonistetako bat ekartzea, eta hilabeteren buruan, kultura berdinari segika Kiko Riverari pasiloa egitea. Eta konturatu naiz justifikaziorik ez dagoela. Arrazoiak egongo dira, norberak bereak izan ohi baititu, baina niretzako, eta harriduraz galdetu didaten horientzako, ez dago justifikaziorik. Durangoko Azokaren 48. edizioaren biharamunean idazten dizuet. Beste behin euskal kulturak bizirik dagoela erakutsi digun pasarelaren biharamunean. Durango busti da kulturaz, eta Durango (eta hara gerturatu garen guztiok) busti egin gara kulturarengatik. Nahitaezkoa delako, kultura bizi-bizi ari delako gure herrian, baina gure beharra daukalako horrek, bai ala bai.

Ahalegina egin nuen negozioaren izenean halako "kultur eskaintza" justifikatzen, eta konturatu nintzen, ezetz, niretzat negozioak ere ardurazkoa behar duelako izan. Eta herri honetan negozioa egingo duenari herri honen alde negozioa egitea eskatzen diodala, nik neuk, behinik behin.

Ainhoa Mendibil ☺



# ezkontza

## gehigarria

Ezkontzera zoaz eta egun hori ahaztezina izatea nahi duzu? Bada, gauza bat izan argi. Bizitzako beste edozein arlotan moduan, hemen ere aurreko lanek garrantzia handia dutela. Horregatik, komeni da eguna baino hilabete batzuk aurretik hastea prestaketekin. Askoren ustez, ezkontzagaien arropak izaten dira osagai nagusia ezkontza egunean. Soinekoaz eta trajeaz gain, ordea, badira kontuan hartu beharreko beste hainbat kontu ere, guztiak lotuta bakarrik lortuko dugulako ezkontza eguna guk nahi bezalakoa izatea. Kontuan hartu beharreko bestelako gauzen artean daude orrazkera eta gonbidatuei eskainiko zaien banketea, besteak beste.

## Emaztegaiaren orrazkera

Soinekoa primerakoa, lore-sorta primerakoa, makilajea primerakoa... Ondoen datorkizun orrazkerarekin asmatzea soilik falta zaizu. 2014rako look hiper-erromantikoak daude indarrean. Jarraian azalduko dizkizugu datorren urterako bost orrazkera mota:

Trentzak: Motots forman, garondo gainean batuta edota diadema forman eraman daitezke trentzak. Altararako bidea egiteko orrazkerarik dotorena eskainiko dizu trentzak. Ezinhobeto egiten du datorren urterako indarrean datozen vintage estiloko soinekoekin.

Erdi-bilduak: Ohiko mototsa baino irudi naturalagoa eskaintzen du motots erdi-bilduak. Ile soltearen eta motots italiarraren arteko nahasketa bat egin daiteke, eta nahi izanez gero, ile luzegariak jartzeko aukera ere ematen du, ia oharkabean. Ilajeari gorputz gehiago emango diote luzagarriek, eta inor ez da konturatuko. Erdi-bildu kiribilduak lozez apainduriko diademarekin primeran doaz.

Motots italiarra: Zehatza, tirantea eta goialdean. Aukera klasiko eta eleganteena da. Lepo luzeagoaren itxura ematen du, eta zentimetro batzuk altuagoa

zarella emango du. Orrazkera honi esker, takoi txikiagoa duten oinetakoak janzteko aukera izango duzu.

Apaingarriak: Diadema eta apaingarriak oso egokiak dira ezkontza-beloa eraman nahi ez duten emaztegaiantzat. Kristalxo edo harri txikiz osatutako diademak, lore naturalez osatutakoak edota perlaz apaindutakoak izaten dira dotoreenak.

Ilea solte: Ile adats luze eta ederra dutenentzat solte eramatea da aukerarik onena. Sorbalden gainetik eroritako adats luzeak itxura dotorea eskaintzen du beti.

**BIAK**  
ileapaindegia  
San Inazio, 4  
Tel.: 943 742 725  
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)

Gabon zoriontsuak!!

**AZALEA** Edergintza  
M<sup>a</sup> Carmen Bereziartua  
Trenbide Kalea, 3 zkia. behea - 20870 ELGOIBAR  
Tel.: 943 740 310

**HIDRODEPURAZIOA**  
Organismoaren garbiketa naturala  
GORPUTZ ETA AURPEGI ESTETIKA  
Deplazazio (jaserri, elektrikoak eta argizariak) - Mikropigmentazioa

**AGURTZANE**  
c.b.  
ileapaindegia

Fotodepilazioa egiten dugu  
ONDO PASA EGUERRIETANI  
Santa Ana, 18  
20870 Elgoibar  
Tel.: 943 741 864

**Imprenta Arrillaga**

Inprimaketa: Offset  
Digitalean

Ezkerreko gonbidapenak  
Hiria orgeriak  
Diseñu teknikoak  
Kartak - etiketak  
e. b.

Fotokopiatu  
Kaleetan  
Txan-batasun

Trenbide Kalea, 13 - behea  
Tel.: 943 74 01 87  
e-posta: arrillagasi@euskalnet.net

# Jatordu berezietarako eskaintza

Ezkontzak, familia-bazkariak ...  
Bazkalostean umeekin jolasteko zerbitzua:

Jolasak  
Tailerrak  
Aurpegia margotu  
Mozorrotu

...



Informazioa:

Elgoibarko Izarra kultur elkarte  
atutxiamaika@elgoibarkoizarra.com  
943 74 16 26 (Naiara/Mikel)

ELGOIBARKO IZARRA 50  
KULTUR ELKARTEA

...50. Lehen Anabaitza

## Gizonezkoen ile-apaindegia

JOSE ANTONIO

Ilea zaintzeko Kerastase eta L'oreal tratamenduak,  
gizonezkoentzako zein emakumezkoentzako

Errosario kalea, 30  
Elgoibar  
Tele.: 943 741 492



- Etorri ahala atenditzen dugu
- Gazteentzako moda zein klasikoa
- Ilea mozteko, behin erabili eta botatzeko tresnak
- Legeak ezarritako higiene neurriak



[www.peluqueriajoseantonio.com](http://www.peluqueriajoseantonio.com)





MONUMENTU ARTISTIKOA



# LASCA JATETXEA

*250 LAGUNENDAKO  
JANGELA*



El Diario Vasco  
"Más gastronomía"  
Sariaren irabazlea  
2009an,  
BANKETEETAKO  
GIPUZKOAKO  
JATETXE  
ONENA moduan.



*ERA GUZTIETAKO BANKETEAK  
ospatzeko toki bikain batean*

Ozaita Jauregia  
Tel. 943 76 10 55

Faxa: 943 76 20 29

[www.restaurantelasa.es](http://www.restaurantelasa.es)

BERGARA







ESKERTZA

## JUAN EGUREN DIAZ

2013ko azaroaren 28an hil zen, 90 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

## ANTONIA URRUTIA JAUREGUI

2013ko azaroaren 30ean hil zen, 92 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

## ROSA UNZUETA IRIONDO

2013ko azaroaren 29an hil zen, 94 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

## ANTONIO ANSOLA ARRIETA

*"Azkabe"*

2009ko abenduaren 2an hil zen, 82 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



I. URTEURRENA

## JOSE ALBERTO GURRUTXAGA KONDE

*Lagun handia eta leiala  
beti zeunden irribarretsu  
gaixotasun bortitz honek  
gugandik urrundu zaitu  
zure umore eta alaitasuna  
betiko izango ditugu.  
Agurrik ez, gero arte  
besarkada bat zuri, "Gurru".*

2012ko abenduaren 10ean hil zen,  
62 urte zituela.

"BAIKOR" koadrilakoak





## Kontzezio azoka eguna, iruditan

U rtero legez, baserriko produktuen azokak berak, dantzek eta herri kirolek osatu zuten zapatuan Kontzezio Azoka eguneko egitaraua. Goizean baserriar jantzi dotoreenak aukeratu zituzten (Maialen Olazabal eta Roke Landa) eta Erribera-ko produktuez betetako bi otar zozkatu zituzten azokan erosketa egin zutenen artean. Jon Ander Urbietta eta Jose Garcia izan ziren saridunak-. Gaztaren lehiaketa ere egin zuten (Igone Urbietta eta losu Zialtzetaz eraman zuten saria), eta eguerdian, Juan Carlos Soto nagusitu zen, Jon Larrañagaren kontrako desafioan. Gizon probetan, berriz, mendarorarrak nagusitu zen, 58 plazarekin. '101 Gaztelu'-ko Manu Maritxalar eta Imanol Gonzalez lehiakideek neskekin batera tiratu zioten harriari. Argazkiak: [www.elgoiBARREN.net-en](http://www.elgoiBARREN.net-en).



Gorka Garate sagardoa zerbitzen, epaimahaikoen aurrean.



'101 Gaztelu'-ko Manu Maritxalar eta Imanol Gonzalez, nesken taldean, harriari tiraka.



Ume zein nagusiek gozatu zuten jai egunaz.



Juan Carlos Soto intxaurrak apurtzen.



Jon Larrañaga, lokotx batzen.



Herriko gaztetxoak, plazan, dantzan.

## jurdan ezenarro

Oihana Lopez taldekide eta lagunarekin batera agertu da hitzordura Jurdan Ezenarro (Mendaro, 1982), *101 Gaztelu* telebista saioko lehiakidea. Zaldunen taldekoak dira biak, eta irribarretsu datoz, domekan finala irabazita. Jonas Ormabeira laguna falta dute argazkirako, taldearen hirugarren zutabe nagusia. Zerbait izan badira, taldea izan direlako Zaldunak. Finaleko egunetik ahotsa ere etorri zaio Jurdani bere onera, eta berak hartu du hitza. “Lehenengo egunetik izan gara talde bat, eta talde-lanaren emaitza izan da garaipena”.

Ainara Argoitia



## “Manuren aldean Goñi tranpatiagoa da, eta itzel disfrutatu dut berarekin”

### Nola animatu zinen?

*El Conquistador del fin del mundo* saiora aurkezteko gogoz nebilen, eta aukera honen berri izan nuenean ez nuen zalantzarik egin. Markinako lagun batekin joan nintzen hauta-probara. Abentura eta saltsa gustatzen zaizkigu, eta gainera, euskaraz izanda... Hauta-proban, butano-apustuarekin eta giza-proben kontuekin apur bat jokatu nuen, eta hartu ninduten. Dena oso azkarra izan zen: proba egin eta astebetere esan zidaten hartu nindutela eta astebete geroago grabatzen geunden. Ez nuen ezer preparatzeko astirik izan, eta zoramena ere izan zen lan kontuak eta gobernatzeko.

**Euskaraz, eta ETB1en. Arropetan ere igarri da ‘Konkis’-en aldean aurrekontua txikiagoa**

**zela: Ternuatik Astorera egin duzue.**

Sekulako hotza pasatu dugu. [Kamiseta termiko bat atera du]. Hauxe da geneukan arropa lodiena! Justua erabili dugu guk.

**Zer nolako esperientzia izan da?**

Ahaztezina. Abentura gogor eta luzeagoa espero nuen, baina disfrutatu dut, eta baita sufritu ere. Ez da abentura hutsa izan, hala ere. Telebista dago tartean, eta azkenean une amorragarriak ere izaten ziren. Bagenekien gu tentatzen ibiliko zirela polemika sortzeko. Ikusten ez genituen gauzak ikusiarazi dizkigute, eta berotu arazi gaituzte, zaila ere ez delako, egon garen baldintzetan egonda, baina taldean bageneukan hitz egiteko aukera, eta nik uste dut, gure taldean behintzat, ez dutela lortu nahi zuten irudi hori. Oso mo-

mentu onak bizi izan ditugu, eta momentu zailak ere bai, taldekideren bat kalera bidali behar zenean-eta, baina merezi izan du. Sentimenduen aldetik ere ukitu naute. Negar gehien egin dudana ere izango naiz, seguru, baina lehenengo egunetik bertatik ipuinetako kontua ematen zuen. Sekulako taldea egokitu zitzaidan, oso ondo hartu genuen elkar, proba irabazi egin genuen, goizaldeko seirak arte egon ginen Imanolen kontuak entzuten [Imanol Gonzalez, lehiakide ermuarra]. Pentsatzen nuena baino askoz gehiago gozatu nuen lehenengo egunetik bertatik, eta alde horretatik, etxera bidaltzen baninduten ere, ni konforme, bete ninduelako biziakoak.

**Zeuk esan duzu: telebistaz ikusten duguna ez da beti egia izaten. Ematen zuena bezain**



### ondo konpondu zarete?

Bai. Kontrakoa irudia eman nahi bazuten ere, nekez lortuko zuten materialik! Mikelen [Goñi] eta bion artean egon zen tirabira bakarra. Zuk badakizu beti iji eta *aja* nabilela ni, eta han ere berdin ibili nintzen. Azkar hartzen dut konfiantza, eta gustatzen zait adarra jotzea, eta, jakina, Mikeli ez zion graziaz egin eta protagonismo bila nabilela bota zuen kamara aurrean, aurrez niri ezer esan gabe. Kamarak joan zirenean arazorik baldin bazuen aurpegira esateko eskatu nion, eta haserretu zen, eta nola!. Oso-osoa gaizki pasatu nuen, eta pentsatu ere egin nuen dinamika hori hartu behar bazuen programak, ni han soberra nengoela. Ez dakit kanpotik zelan ikusi nauten, baina nik esango nuke, eta bestela Oihanak zuzendu nazala, kanpoan eta barruan berdina izan naizela ni.

### Programarako hartu zintuztenean ere esan zenigun ez zindoazela fraile izatera.

Eta hautaprotan ere esan nien, tranparik egiteko prest egongo ote nintzen galdetu zidatenean. Programan, gure artean giro txarra zegoen plantak ere egin genituen, kamaradunak despistatu eta jatekoa lortzeko, baina hamabi egunean ez zen besterik egon. Akordatzen naiz gordeta geneukan jatekoa alde egin aurretik hartzeko behin erabili genituenak ere! Susmoa bazuten Oihana eta bion artean zerbait bazegoela eta probetxua ateraren genion. Gu biok joan ginen elkarri helduta bazter batera, kamaradunak ekartzeko eta taldekideak jatekoaren bila joan zitezten, baina horrekin ez zen nahikoa izan, eta erredaktorea despistatu aldera Mikelek Jonasetaz gaizki esaka ari ginela zabaldu zuen. Dena gezurra zen, baina lortu genuen nahi genuena. Nirekin haserretu-eta dana egin dira tarte programakoak, mareatzen nituelako batera eta bestera, baina zerbait lortu nahi bagenuen garbi zegoen ezin ginela beti artaldea moduan taldean ibili.

### Odol berokoa zara zu, baina programan barre-bare ikusi zaitugu.

Helburu horrekin joan nintzen. Joan aurretik, Igorrek [anaia zaharrenak] ere esan zidankontziente izateko nora nindoan. Garbi neukan ezin nuela Euskal Herri osoaren aurrean espektakulua eman. Eta pozik nago.

### Zer egin zaizu gogorren?

Ez dakit, egia esan pentsatzen nuen egoera muturragokoak bizitzea tokatuko zitzaigula. Gosea pasatu dugu, eta egun batzuetan hotz handia ere bai, baina lotarako ere, txarrena, furgoneta geneukan, eta oso eroso ez izan arren, bazen zerbait. Gosea pasatu dut, baina, eta txispa galduta iritsi nintzen azkenera, energia gabe. Okela sobera handirik ez daukat, baina irudi batzuetan hezurretan nago. Lau kilo galdu nituen hamabi egunean. Grabazioak bukatu genituenetik domekara artekoa ere gogorra egin zait, luzea. Aurreko astean deitu ziguten esanez zapatuan goizeko bostetan etorriko zitzaizkigula bila, baina beste azalpenik ez ziguten eman. Ez genekien ezta bakarrak irabaziko zuen edo taldeak. Probetan gogorrena Maulekoa egin zitzaidan. Gorputz osoa neukan minduta. Saihetsetan min hartu nuen aurreko egun batean, Mikelekin eta Jonasekin tontoarena egiten ari nintzela, eta ezin nuen gehiago.

“Gosea pasatu dugu, eta egun batzutan, hotz handia ere bai”

### Euskal Herriko ondarearen parte bat ikusteko aukera izan duzue, behintzat. Joaterako, erreparatu al zenuen gazteluen mapa?

Dena ez dago kontatzerik, baina, bai, ibili ginen zeozertan. Hori bai, jakin izan banu zein kontrol gutxi egingo zizkiguten...

### Esku beltza zegoela esan eta esan aritu da zuen kapitaina.

Bai, bai, egon da. Baigorriko proban gu iritsi ginen lehenengo Etxauz gaztelura, baina bezperatik garbi geneukan iritsi ezean programakoek eurek ere zerbait egingo zutela pertsonaia ezaguna [Koteto Ezkurra] guk hartzeko. Oibar eta Mikel etxera joan osteko eguna zen, eta eurek bost lagun eta kapitaina ziren, eta gu hiru baino ez. Programa parkeatzea komeni zitzaien. Konbentzita gau-

de euren interesen arabera ere jokatu dutela. Hori Manuk bera ere esango dizu.

### Mikel Elizegik finaleko saioan aitortu zuen poztu zela zuen taldean egokitzeaz. Ez zenuen aukeraterik izan, baina aukera izanez gero, Mikel hartuko zenuke kapitain?

Dударик gabe. Nik poza hartu nuen bere taldeztat hartu gintuenean. Ez diot Manuri askok dioten ezinikusi hori, baina Manu zuzenagoa da, korrektoagoa-edo, eta Mikel, nire antzera, tranpatiagoa da, saltseroagoa. Itzel disfrutatu dut berarekin. Programan azkenerrako ikasi duguna da ezin zela onera joan, ‘hau egin dezaket?’ galdezka. Jonas nire aldean formalagoa da, eta eta hari ere esaten nion: ‘Jonas, ez galdetu. Egin, eta ezin bada egin, esan diezagutela eurek’. Garbi laga nahi dut Manuren kontra ez daukadala ezer. Ez dut larregi ezagutzen, baina uste dut esaten dituen gauzak bete dituela eta lagundu behar izan zigunean lagundu zigula. Zaila da harrapatzea, baina, eta berak ez du ahaleginik egiten jendeak bere beste alde hori ikus dezan. Harro puntu bat badauka, hori bai.

### Harremanik mantentzen duzue taldekoek?

Bai, bai, oso ona, gainera.

### Finalera iritsi, eta lehiatik kanpo gelditu behar! Zer sentitu zenuen?

Arantza hori gelditu zait: gehiago eman ezina. Batek kanpoan gelditu behar zuen, eta taldearen onerako, neu gelditu nintzen, soka ikusi genuenean pentsatu genuelako Jonasetzako egokiagoa izango zela, nik baino beso-indar handiagoa duelako. Ahotsa ere galdu nuen lagunak animatzen! Orruka ibili nintzen, nire ahotsa entzun zezaten.

### Programan ez duzu zapi berdea kendu ere egin. Mendaroko Gazte Asanbladakoak harro egongo dira behintzat zutaz.


Jajaja. Neu nago eskerrak emateko. Eskerrak eman nahi dizkiet babestu nauten guztiei eta estimutan izan nauten guztiei. Telebitara ikurren bat eramane nahi nuen, eta presoen ezer sartzen utziko ez zidatela pentsatuta, Gazte Asanbladaren jaietarako zapia hartu nuen. Txapela ere eramane nuen. Noan leku guztietara eramaten dut. Eta hirugarren gauza bat ere hartu nuen: umetan jolaserako erabiltzen nuen giltza zahar handi bat, gazteluetarako bideak irekitzeko-edo.

## Autismoa eta laguntza-txakurrei buruzko nazioarteko batzarra egin du Anateusk zentroak Elgoibarren

*Bat* izeneko txakurrarekin hasi dute esperientzia pilotua

**A**nateusk Gizarte Berrikuntzarako Zentroak pertsonen osasuna, hezkuntza eta ongizatea sustatzen ditu, animalien eta naturaren laguntzarekin, eta une honetan garatzen diharduten egitasmo berritzaileenetarikoa bat ezagutzera eman dute aste honetan Elgoibarren: Laguntza-txakurrak hezten dituzte autismo espektra duten haurren familiekin elkarlanean, eta *Bat* izeneko txakurrarekin ari dira bidea irekitzen. 2011n AFAINE programa jarri zuten martxan down sindromea eta autismoa duten umeekin lan egiteko, eta programa horretan parte hartzen ari den ume batekin jarri dute martxan esperientzia berria: Xabi, eta bere familia laguntza-txakur bat hezteko eta euren familiako kide bat gehiago izateko hautagai egokia zela ikusi zuten Anateusk zentroko arduradunek. Hala, duela bi hilabete eta erdi ailegatu zen *Bat* izeneko txakurkumea Pili eta Javier senar-emazte elgoibartarren etxera, euren seme Xabiri, eta familia osoari laguntzeko. Behar den moduan hezita, laguntza-txakur batek onura asko ekar ditzakeela azaldu du Eneko Kortabarria Anateuskeko arduradunak: “Txakurrak ez du autismoa sendatzen, noski. Ez du magiarik egiten, bidea erraztu baizik”.

Alor honetan lanean diharduten adituak gonbidatu zituzten Elgoibarko udaletxean egin zuten topaketara, eta gonbidatuetakoa bik bideokonferentziaz parte hartu zuten, Alberto Alvarezek Australiatik eta Nuala Gadnerrek Eskoziatik.



## Organu eta ehunen transplanteei eskainiko dio EITBk telemaratoia



*Oparitu bizitza* da aurten EITBko telemaratoirako aukeratu duten leloa. Organu eta ehunen transplanteen gaia azaleratuko dute, eta batzen duten dirua ikerkuntzarako erabiliko dute oso-osoan. Abenduaren 19an egingo dute telemaratoia EITBn, eta egun osoan zehar, organu eta ehun transplanteen gaineko informazioa zabalduko dute bai telebistaz zein irrati. Koro Aldaz elgoibartarrak ere parte hartu du telebistararako egin duten grabazio batean. Alcer Gipuzkoako presidentea da Aldaz, eta duela hogeitun urte transplantatu zioten giltzurruna, alabaz erditu eta gutxira, sei urtez dialisia egiten ibili ostean.

Ez zituen urte errazak bizi izan, baina gaur, emaile anonimo hark emandako giltzurrunari esker, bizimodu “normala” egiten du, eta zorionekoa da. “Askotarik zaintzen naiz, organua eman zidan hari ere zor diodalako, baina gainerakoan oso ondo nago”.

Orduetik gaur arte, gauzak asko aldatu dira, eta nabarmen gutxitu da transplantatzeko zain daudenen zain egon beharreko denbora ere. “Emailei zor diegu. Horregatik da oso garrantzitsua jendea organu eta ehunen beharraz ohartaraztea eta emateko prest daudenen euren inguruan gai honen berri naturaltasunez hitz egitea eta in-

guruokok haien iritzia errespetatzea”, adierazi du Ines Sesmak. Zortzi hilabete egin zituen berak dialisia eta duela hamabost urte aldatu zioten giltzurruna. Urtebetera lanean zegoen. Badu Agurtzane Garziaren kasuarekin antzekotasunik. Garziak datorren urtean beteiko ditu zortzi urte transplantatu zutenetik. Hogeitun hilabete egin zituen berak dialisia: hogeitun hilabete, astean hiru egunetan lau orduz dialisia egiteko makinari lotuta.

Pasa zuten euren kalbarioa, denbora guzti horretan dena ez delako zoriona, baina gaur bizitako guztiaren alde onari erreparatzen diote. Esker oneko hitzak baino ez dituzte bizia eman zietenentzako, alboan egokitu zitzaizen mediku eta erizain taldeenentzako, urtean zehar euren elkarrekin diruz laguntzen dutenentzako, eta baita, jakina, gaur organoak edota ehunak ematea erabakitzen dutenentzat. Organu emaile bakar batek bizi asko salba ditzakeela ohartarazi dute.



## Izena **Josu Mugertza**



Belaustegi jatetxeko Josu Mugertza telebistan azalduko da datorren astean. Angulas Aginagaren eskutik, Tele5 kateko Salvame saioan agertuko da, astelehenetik ostegunera bitartean. Arratsaldero zuzenean sukaldatuko du elgoibartarrak.

## Zenbakia **20.000**

20.000 euro erabili ditu Elgoibarko Udalak Eguberrietako argiak jartzeko, iaz baino 2.670 euro gutxiago, alegia. Gutxi gorabehera iazko argi eta motibo berberak jarriko dituzte, baina aurrekontuak behera egin duenez, leku batzuetatik kendu egingo dituzte apaingarriak. Hortaz, Urazandi, Sigma eta Trenbide kalean argi gutxiago egongo da. Aurreko urteetan moduan, LED motako argiak erabiliko dituzte aurten ere.



## Egitasmoa **Tantaz Tanta, olatua**



Tantaz tanta olatua sortzeko deia egin dute biharko. Hamaika iturritatik sortutako tantak, handik eta hemendik datozen isuriak bildu nahi dituzte itsaso berean, "une historiko honek hala eska-

tzen duelako". Giza eskubideen errespetua eta preso, iheslari eta haien senideei ezartzen dizkieten salbuespen neurriak amaitzea eskatuko dute. *Giza eskubideak, irtenbidea, bakea, euskal presoak Euskal Herrira* lemapean batu-ko dira 13:00etan Kalegoen plazan, eta ekitaldi "berezi" baten ostean, famili-argazkia aterako dute. Bertsolariak izango dira, eta amaieran, salda eta txoriaz banatuko dituzte.

Era berean, urtarrilaren 11n Bilbo itsaso bilakatu nahi dute, eta horretarako, tantak behar dituzte. Bilbon egingo den manifestazioan parte hartzeko deia egin diote gizarteari, eta horren barruan, elgoibartarrak ere gonbidatu dituzte parte hartzera. "Olatua izateko tanta asko behar ditugu, zu behar zaitugu. Izan zaitetz tanta", adierazi dute antolatzaileek.

## **Zaldiko Maldikoa eta eltzea jarriko dituzte Maalan**

Aisialdi ekintzen barruan, zaldiko maldikoa eta eltzea jarriko dituzte etxeko txikienentzat Maalako parkean. Gaurtik aurrera martxan egongo dira.

## **Jubilatuena astea ospatzen dihardute egunotan**

Jubilatuena Astea ospatzen ari dira egunotan Zaharren Biltokian. Txokolate jana egin zuten martitzenean, eta atzo, 80 urtetik gorakoentzako bazkaria izan zen. Bazkaldu aurretik, aurten urrezko ezteiak bete dituzten bikoteei omenaldia bat egin zieten, lore sorta bana eta Elgoibarko oroigarria emanaz. Bihar, sorpresa izango dute 17:00etan, eta domekan hildako jubilatuena omenezko meza ospatuko dute 12:00etan, Parrokian. Arratsaldean, bestalde, Gelatxo orkestrarekin egingo dute dantzaldia.

## **Gabonetako jaialdia**

Ikastolako Lehen Hezkuntzako ikasleek Gabonetako jaialdia egingo dute eguenean. 15:00etan ikasleentzako saioa eskainiko dute, eta gurasoentzako emanaldia 19:00etan izango da. Bi saioak Herriko Antzokian izango dira.

## **KZGunean hainbat ikastaro eskainiko dituzte abenduan**

Abenduan goizez egongo da irekita Elgoibarko KZGunea, eta hila bete osoan zehar hainbat ikastaro eskainiko ditu. Internet eta ordenagailuen munduan barneratzeko aukera eskaintzen dute batetik, eta bestalde, norebere neurriko ikastaroak egiteko aukera ere badago. Nagusientzako ikastaroak, gmail erabiltzen ikasteko saioak, Office writer eta Office calc ikastaroak... Ikastaro batzuk euskaraz izango dira, eta beste batzuk gaztelaniaz. Informazio gehiago nahi izanez gero, *tutor.elgoibar@kzgunea.net* helbidera idatzi edo 943 023 640 telefonora deitu behar da.



# Olentzeroren zakua

*Zergatik erosten duzu auzoko denda txikian?*

Gehigarri honetan aurkituko dituzun boletoen deskontuak eskuratuko dituzu, abenduaren 13tik abenduaren 19ra arte. Erosketa bakoitzeko boletoa bakarrik erabili daiteke, eta ezin dira bestelako beharpenei gehitu.

1. Tratu gertukoagoa eta pertsonalizatua eskaintzen dizutelako.
2. Aholkatzen dizutelako, eta era horretan zure konfiantza irabazten dutelako.
4. Gertuan erosita, hemen bertakoa balioesten duzulako
5. Hemen bertako identitate kulturala zaintzen duzulako
6. Gure bizilagunak direlako eta etxetik gertu ditugulako
7. Auzoetako gizatasuna mantentzen dutelako, eta gizarte harremanak sustatu
8. Bizia ematen dietelako gure auzoei, eta askok auzoetako jaiak antolatzen eta auzoetan egiten diren ekintzetan laguntzen dutelako.
9. Eskaparateek kaleak janzten dituztelako
10. Denda handien aldean, enplegu egonkorragoa eta kalitatezkoagoa sortzen dutelako

**IRIONDO KIROLAK**  
MENDI ETA KALEKO KIROL MODA  
San Frantzisko, 37 Tel.: 943 74 09 56

**MINI MICRO 3X1**  
(Umeentzako adinaren arabera patinete moldagarria)

**MINI MICRO**

**MAXI MICRO**

**MICRO SPRITE**

**Micro etxeko patineteak  
74,90 eurotik aurrera!**

**ARAMBURU**  
BITXIDENDA

San Frantzisko, 26  
Tel./faxa: 943 74 25 35

Erosi, eta 250 €ko balen zozketan sartuko zara

**ERLOJUA  
55 €**

**PULTSERAK:**  
 ☉ Urdina: 45 €  
 ☉ Beltza: 49 €  
 ☉ Marroia: 63 €

**ERAZTUNAK:**  
 ☉ Marroia: 36 €  
 ☉ Beltza: 49,90 €

**G & M**

Kupoi honekin %15eko beharpena izango duzue zuen erosketetan.

**Gona  
44,50 €**

**Jertsea:  
46,90 €**

**Txamarrak:  
89,95 €**



# GARATE

Jantzi - Denda



B Young jaka: 79,95 €  
 Amy Gee soinekoa: 69,90 €  
 Amy Gee buff-a: 19,90 €  
 Nice Thing Poltsa: 59,90 €  
 Amy gee txalekoa: 69,90 €  
 Amy gee txapela: 14,90 €  
 Kalentadorak: 16,95 €

**Kupoi**  
 honekin  
 %10eko  
 beharapena  
 zure  
 erosketetan



San Bartolome, 28 943 74 43 45



BRAKO etxeko  
 botinetan %50eko  
 beharapena.



# Maidagan

Jantzi denda

San Frantzisko, 20 - Elgoibar  
 Tel.: 744 098



**Galtzak**  
 71,55 €

**Jertsea**  
 89,00 €

**Berokia**  
 140 €

**Foulard**  
 16,75 €

**%15eko**  
 beharapena zure  
 erosketetan  
 kupoi hau  
 ekarriz gero!

# Kala Loradenda



Tiket hau erakutsiz gero  
 erosten duzun artikuluetan

**%10** beharapena  
 lortuko duzu.

San Frantzisko, 24 - Tel. 943 744 516

# Gbike

Santa Ana kalea 12, behea ezk.  
 Tel.: 943 740 025 / 617 627 152  
 gobikeelgoibar@gmail.com

**I. urteurreneko sustapena**  
 % 10 beharapena  
 artikuluz guztietan



Beharapen hau ez da metagarria  
 beste eskaintzetan

# ZUP

Rosario kalea, 34  
 Tel.: 943 531 205

## NESKA

- Txalekoa: 102,60 €
- Tigre motadun jertsea: 68 €
- Zapatiak: 81 €
- Boltsa: 48,50 €



## MUTILA

- Galtzak: 86,40 €
- Nikia: 35 €
- Jaka: 108 €
- Buff: 25 €
- Zapatiak: 68 €
- Boltsa: 27 €
- Txapela: 24,50 €

Kupoi honekin %10eko  
 beharapena zure erosketetan





**CASA ASTIGARRAGA**

Errosario, 16-18

Tel: 943 743 268

*Ferpi*

Ekarri kupoi hau eta deskontua egingo dizugu zure egutegian, Eguberrietako zorion-agur txarteletan eta ezkontza agunerako gonbidapenetan.



ROXY etxeko motxilak

**32 €**



ROXY etxeko diru-zorroak

**9 €**

Brazuka, mundialeko baloia

**23 €**



Parka: 108 €  
Berokia: 92 €  
Jertsea: 41 €  
Alkandora: 55 €  
Gona: 76 €



**%10eko** beherapena Parketan!



Artilezko foularretan **%25** deskontua!

**%15**



**Zorionak, eta urte berri on !!!**



San Ignazio, 1 - ELGOIBAR  
Tel: 943 53 17 45 - jasones@jasonesg.com  
[www.jasonesg.com](http://www.jasonesg.com)



## Txankakuako dendetan erosteak oparia dauka!

ELGOIBARKO MERKATARI ETA ZERBITZU ELKARTEA  
ASOCIACION DE COMERCIANTES Y SERVICIOS DE ELGOIBAR

# TXANKAKUA



TXANKAKUA Merkatari eta Zerbitzu Elkarteak 10 EROSKETA -TXEKE oparituko ditu.  
1. saria: 500 euro, 2. saria: 500 euro, 3. saria: 100 euro, 4. saria: 100 euro, 5. saria: 100 euro,  
6. saria: 100 euro, 7. saria: 100 euro, 8. saria: 100 euro, 9. saria: 100 euro, 10. saria: 100 euro.

**1.800** EURO

Hamar sari hauen zozketa notariaren aurrean egingo dugu 2014ko urtarrilaren 8an.  
\* 2014ko otsailaren 8ra arte balio du.  
Sartutako zenbakiei buruzko informazioa, Txankakuako dendetan edo 943 74 73 01 telefono zenbakian.  
El sorteo de los diez premios se realizará el próximo día 8 de Enero de 2014 ante notario.  
\* Caduca el 8 de Febrero de 2014.  
Información sobre los números premiados en los comercios de Txankakua ó llamando al 943 74 73 01.



Dirulaguntzailea:

ELKINGU JABARITZA GOBIERNO VASCO

ERROKATZAILEAK

DIRULAGUNTZA



# TXANKAKUA

1.800€

OPARITUKO DITU  
EROSKETA-TXEKETAN.



**Abenduak 21 eta urtarrilak 4, zapatuak,  
Txankakuako dendak arratsalde zabalik**

Azkue argazki-denda

Dori urdaitegia

Ikus optika

Sigma jatetxea

Beitia-Arriola hortz klinika

Garate jantzi-denda

Textil hogar

Ametsa kafetegia

Moma jantzi-denda

Hazten jantzi-denda

Arkupe okindegia

G&M jantzi-denda

Tantaka taberna

Debemen

Armueta harategia

Txarriduna jatetxea

Viento Sur gastroteka

Uxue Alberdi

Abel Arriaga

Astia

Albaitaritza klinika

Mapfre aseguruak

Columbus etxea

Bar

Doña Mercedes okindegia

Maidagan jantzi-denda

Amaia frutadenda

Agurtzane ileapaindegia

# Elgoibarko Izarraren aldeko

# TONBOLA

Abenduak 24, 11:00etatik 14:30era,  
Kalegoen plazan

Urratsak oinetako-denda

Arantza eta Marian frutadenda

Txillarre Eko denda

Kiroldegiko taberna

Mekanosa paper-denda

Zezenbide auto-eskola

Zabala frutadenda

Haritz dantza taldea

Tonbolako gure lagunak

Ecuador bidai-agentzia

Mintxeta P

Eizagirre okindegia

Iriondo altzariak

Ipintza pinturak

Alberto Iriondo

M. Angeles frutadenda

Jon Gurrutxa

El desván Guliguri

EHko es

Ainhoa

Jasone

Beristain

Pelegrin

Belausteg

Lanbroa taberna

Fotero okinde

Maite Maiora



Gorostiza liburu-denda

Arauri surrindegia

Goiara surrindegia

Gabi jatetxea

Muruamendiaraz gozotegia

Ostruka zapata-denda

Sara jantzi-denda

Kontxi jantzi-denda

Olalsa

Jakoba Errekondo

Iriondo kirolak

Jantzi-denda

Karkizano mertzeria

Zubiaurre mertzeria

Arraga kirolak

Ezenarro mertzeria

Skandalo mertzeria

Ander Mujika

Netxea botika

Amagoia gozoki-denda

Patxi harategia

Iturri taberna

Eboka zapata-denda

Edu Arrillaga

Jairo Berbel argazkilaria

Sahatzu harategia

Elena ileapaindegia

Danele Sarriugarte

Iñigo Lariz

Fadek ileapaindegia

Soarte argazki-denda

Pitxintxu opari-denda

Fisioterapia

Xarlem Creations

Bidatz Azpiazu

Alcorta makailaoak

Osoro

Lete jantzi-denda

Bire etxe-tresnak

Sanlo eskubaloi taldea

Banaketa

Ekain pintura-denda

Leigar elektronikak

Ibai Ondo jatetxea

Julian Iantzi

Aldaz hortz klinika

Usua taberna

Idama ileapaindegia

Jatetxea

Morkaiko mendizale elkarteak

Alfonso Guillò

Ibarrenea okindegia

Markel Bergara

Ziarda harategia

Izaro Etxegibel

Mikel Goñi

Gautxo pizzeria

Irati Agirreazaldegia

Amets Txurruka

Koska

Gemma Monreal

Julen Zabaleta

Koldo Lizarralde

Zuhaitz Gurrutxaga

Letismo taldea

Txomin Mujika

Iban Barrenetxea

Natalia Mellado

Andres Alberdi

Maite Rementeria

Maider Unda

Jesus Mari Makazaga

Oin Berri podologia

Ehun Kilo

Eñaut Elorrieta

Mari harategia

6nemen9

Kala lora-denda

Softlan informatika zerbitzua

Patxi Azpirotz

Eskubaloi federazioa

Ibamar iturgintza

Emilia Nogales

Iriondo taberna

Mausitxa baserria

# JEXUX LARRAÑAGA

BERTSOZALEA

‘Jolas sakona: txapelketaren prozesu errituala eta bertsolariaren arrazoi sortzailea XXI.mendeko agoran’ izenburuko tesia idatzi du Jexux Larrañagak (Mendaro, 1943). Etzi Bertsolari Txapelketa Nagusia jokatu dela aitakia hartuta, bertsogintzaz eta txapelketaz jardun dugu berbetan.

“Pentsamendu  
prozesuetan parean  
daude, gaur, bertsolaria  
eta gizartea”



**Zein izan duzu tesirako abiapuntua?**

Doktorego programan izandako ikastaroen lanketaren ondorioz sortu zitzaidan ikerketa gaia, eta ideia hari forma eman nionerako doktorego tesia prestatzen ari nintzen. Ordu-rako, 2009rako, baneukan marko bat erdi eraikita, baneukan egitasmo bat, eta urte horretan, Bertsolari Txapelketa Nagusia jokatu zenez, horixe izan zen, nolabait esatearren, nire landa lana egiteko oinarria. Ikerle begiradarekin jarraitu nuen txapelketa, eta gero, txapelketa ostean, egin nuen landa laneko bigarren zatia: kultur eragileei eta txapeldun izandako bertsolariei elkarriketak.

**Bertsolaritza asko aldatu da, eta txapelketa bera ere bai. Zein funtzio betetzen du gaur egun bertsolari txapelketak? Lehenengo txapelketak sortu zituzteneko espektatibak bete- teko ziren entzuleei dagokionean behintzat, baina helburuak bete dira?**

Beste itzultza bat eman diot nik gai honi. Joseba Zulaikak *Bertsolarien jokoa eta jolasa* idatzi zuen 1985ean, eta hitz egin zuen paradoxa horretaz. Paradoxa horren bi aldeak ekarri ditut nik, jolas kulturalaren kontzeptua- lizazio malguago eta berritzaileago batetara, zeinetan txapelketak betetzen duen funtzio kulturala bete-bete hor kokatzen den. Begirada ohiko eta klasikoak, gaur artekoak, lehia soil gisa hartu du beti txapelketa, eta begirada horren arabera, bestea gainditzeak eta irabazteak behar luke garrantzitsuena txapelketan, baina hori ez da horrela. Lehiak ematen dio ikusgarritasuna eta disdira, beharbada, baina txapelketa hori baino gehiago da, eta testuinguru zabalago batean kokatu behar da. Kulturaren eremu errepresentazio- nalera ekarri dut nik txapelketa, nolabait jolas horrek kontestu kultural bat sortzeko eta bir- sortzeko ematen duen aukera aztertzeko.

Iruditzen zitzaidan txapelketa ikaragarriko balioa duen pieza antropologikoa zela eta lehia bakarrik ikustera murrizteak paradoxa- ren beste alde zabalagoa, alde kulturala, bazterrean uzten zuela. Eta jakina, irakurketa horretan, funtzio kultural hori egiletza kolekti- boaren alde dago.

**Zer esan nahi duzu horrekin?**

Balio kolektiboa lehenesten dela. Andoni Egañak berak halaxe esan zuen 2009ko txapelketan. Txapela lortzeko gogor lehiatuko zela esan zuen, baina nahiago zuela bere ordez beste norbaitek jantziko balu. Balio kolektiboa lehenetsi zuen bere buruaren gainetik, era horretan txapelketa bera funtzio kulturalaren barruan jarritz. Helburu zabalago batzuei begira jari zuen txapelketa: euskalgintza, euskal identitatea, herri nortasuna...

**Lehiak haratagokoa azaleratu nahi izan duzu zuk, baina jokora itzultita... Eredu sortzaile iza-**



**teko ere balio du txapelketak. Finalera iristen direnak dira 'onenak'. Horrek mesede edo kalte egiten dio bertsogintzari?**

Ez dut uste kalte egiten dionik. Kanonari buruz ari zara zu, eta hori, noski, saihestezina da. Txapelketak ereduak sortzen ditu, bai, eta bertsogintza bat ere bai, beharbada, baina, era berean, garbi dagoena da azken hamarkadan bertsolaritzak egin duen aurrerabide irakargarria, hein batean, txapelketak bertsolariengan egin duen akuilu lanagatik izan dela, eta gaur duen maila goren hori bada horregatik ere. Beharbada, bertsogintza ez litzateke gaur dagoen mailan egongo txapelketarik gabe, baina egia da ez dugula ahaztu behar txapelketa bertsogintzaren zaitxo bat baino ez dela. Nik neuk, baina, onura gehiago ikusten dizkiot kalteak baino, eta horregatik nahi izan dut txapelketa betiko diskurtsoetik atera. Bertsozale Elkarte barrutik ere egin zaizkio kritikak txapelketari eta asko eztabaidatu den gaia izan da hau, baina orobat, ikusi da mesedea handiagoa dela.

**Txapelketen errepasoa egin duzu. Zein da gaur duen arrakasta izateko gakoa?**

Lana ondo egin izana. Bertsolariek eta elkarrekin berak lan handia egin dute tradizioa beritzen, eta oso ondo asmatu dute tradizioa gaurko gizartean txertatzen. Txapelketari esker, bertsolariek eta gizarteak hausnarketa prozesu bat egin dute eta egiten dihardute gizarte gaien inguruan, eta, gaur egun esan daiteke pentsamendu prozesuan parean daudela bertsolaria eta entzulea –gizartea–. Beti ez da hala izan, baina. Txapelketa oso atzeratuta egon zen garai batean, gizarte prozesuetatik oso atzenduta. 60ko hamarkadan, adibidez, bi mundu zeuden, baina haustura hori gainditu zen, eta gaur, gu guztion ispilu da txapelketa.

**Bertsolaritzaren historian aro ezberdinak bereiztu dituzu. Zehaztuiguzu gehiago.**

Gerra aurrekoa –1935-36ko txapelketa horiek– hartzen da gaur egungoaren aurrekari-tzat. Gerra sasoiaren eten bat egon zen, baina pentsamenduan ez zen horrenbestekoa izan, 60ko hamarkadan bertsolari berdinek jarraitzen zutelako oholtzan, Basarri txapel-dun zela. Uztapidek markatu zuen gero 60ko hamarkada osoa, baina oso atzenduta zeuden sasoi hartan. Gizartean bazegoen halako bor-bor sozial bat, baina txapelketan ez zen halakorik islatzen. Berrikuntza aroa Xabier Amurizarekin batera hasten da, 80ko ha-

markada hasieran. Euskaltzaindiak antolatzen zituen orduan txapelketak. Gero, 1986an, Bertsozale Elkarte sortuko da, eta txapelketaren eguneratzen prozesua hasiko da. Gertatzen ari denaren inguruko gaiak landuko dituzte bertsolariek kantuan, eta ordu-ra arte entzun gabeko diskurtsoa ekarriko dute oholtzara. Andoni Egañak berak esana da txapelketan parte hartu zuen lehenengo aldiaren berak esaten zituen gauzak oso berriak egiten zitzaizkiola entzuleari.

**“Estilo propioa gero eta gehiago lantzen dute, nork bere mundukera agertzeko”**

**Bertsozale elkarteari zor zaio beraz bertsolaritzaren modernizazioa?**

Ez, ez. Elkarteari ez, bertsolariei. Mugimendua egituratzeko orduan garrantzitsua izan zen Bertsozale Elkarte sortzea, baina beste hori bertsolarien eskutik etorri da.

**Tesirako, beraldi luzeak izan dituzu Andoni Egañarekin. Berak beste txapel jantzi duenik ez dago. Zer eman dio Egañak bertsolari?**

Neurtu ezina da Egañak bertsolaritzari egin dion ekarpena. Enbaxadore bat izan da. Handia da tokian tokira egokitzeko izan duen gaitasuna. Egon daiteke orain Donostian, zientzialarien kongresu batean, eta ordu batzuen buruan egon daiteke Gaztetxe batean, eta beti izango da hurbileko. Bertsoa, pieza erretorikoa bera ere, asko landu du, eta eskertzekoa da egin duen lana. Zer eman dion Egañak bertsolaritzari? Nik esango nuke bizitza osoa eman diola.

**Egia da mezu bera ezberdin jaso dezakegula zuk eta nik, baina, beharbada, lotura kulturalak-edo, egiten du askotan bertsolariek kantatzen duena eta publikoak espero duena bat etortzea. Identitatea sortzeko balio du bertsolari txapelketak?**

Bai, identitatea sortzeko testuinguru aproposa da txapelketa. Talde sentimentua, eta kontzientzia bat sortzeko bitarteko ona da. **Irizpide batzuen arabera aukeratzeko dira txapelketako onenak, beraz ondoriozta dezake-**

**gu eredu horretara ondoen egokitu direnak direla finalean daudenak. Zer uzten dute bidean eredu horretara egokitzeko?**

Txapelketa kontestu espezifikoa bat da, eta eginkizun konkretu bat betetzen du. Hala ere, beraiek esaten dute batzuetan hesi barruan ibili behar hori, arau batzuen barruan sortu beharra, mesedegarri ere egiten zaiela. Gainera, pentsamendu estetikoaren baldintza ere bada hori. Gaia emanda dator, erroak zaindu behar dira... arte baldintzatua da, beraz, bertsolaritza, baina bertsolariek beti du bidea ihes egin eta beretik kantatzeko. Zentzu horretan, autore-bertsolariaen figura asko ari da zabaltzen. Estilo propioa gero eta gehiago lantzen dute, nork bere mundukera agertzeko. Lujanbiok berak esaten zidan behin maila bat lortu duen bertsolariek beti duela interesa bere ikuspuntu propioa agertzeko. Duela lau urteko txapelketan askok eskertu zioten Lujanbiori hori egin izana. Ikaragarritzko aurre-lana egin zuen txapelketarako; hustu egin zen, eta bete-betean asmatu.

**Nor da gaurko bertsolaria?**

Herritik sortu eta jendearteak egituratu duen autorea. Tradizio baten barruan dago bertsolaria eta sentitu egiten du herria, eta herri horretatik elikatzen da. Hortik abiatuta gero eta gehiago dira euren ahotsetik kantatzen dutenak. Mundua interpretatzen dute, baina gaiak uzten dien zirrikitutik, nork bere ustetetatik, nork bere pentsamentuetatik, sortzeko. Gaurko bertsolaritzaren aberastasuna hor dago: bakoitzak berea esatean.

**Hizkuntz komunitatea sendotzeko ahaleginetan dihardugunok zer daukagu ikasteko bertsolaritza mugimendutik?**

Euskal kulturaren gaineko kontzientzia sortzeko ahalegina da, beharbada, imitagarriena. Herriz herri lan egiten dute, belaunaldien arteko komunikazioa landu dute, jendearengandik gertu daude, gozaldiak eskaintzen dituzte, eta gogoeta etengabea ari dira.

**Jarraitzen duzu jokoan den txapelketa??**

Bai, baina oraingoan, batez ere, gozatzen ari naiz. Gainera, tesian esandakoak nahikoa afinatuta daudela konturatzen ari naiz, eta disfrutatzen ari naiz.



**Zer egingo diogu! Lehia gustatzen zaigu. Nor jotzen duzu irabazteko faborito?**

Denak daude oso ondo prestatuta, baina hor dago Lujanbio...



# Gobike

Santa Ana, 12 • ELGOIBAR  
Tel. 943 74 00 25  
[www.gobike-elgoibar.es](http://www.gobike-elgoibar.es)



*Flaut barentzako bizikleta erosten baduzu,  
ekarri tiket hau eta kaskoa oparituko dizugu.*



Jarri ezazu zure publizitatea gabonetako alean

[barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)

**B**

BARREN  
astekarian  
943 743 704



ETOR ZAITEZ ZURE GABON  
KATALOGOAREN BILAI



99€

SAMSUNG GALAXY MINI II  
Pantaila: 3,27" HVGA TFT  
Erresoluzioa: 320 x 480 p  
Kamera: 3 Mp  
Bluetooth 3.0 - WiFi



44,90€

PHILIPS SA4VBE04 ERREPRODUKTorea  
4Gb  
MicroSD txartelarentzat lekua  
FM irratia  
Aholtsa eta irratia grabatzen ditu  
Solius, bideoa, argazkiak



199€

LED 24" SCHNEIDER - VEGA 2420  
Full HD  
1.920 X 1.080 p.  
TDT HD definizio altua  
USB grabagailua - Timeshift funtzioa  
Surround soinua

**MILAR**

**BIRE**

Ubitarte 11  
943 741 487  
[bire@milar.es](mailto:bire@milar.es)

## Belaustegi Baserria



San Migel Goia z/g  
Tel. 943 74 31 02  
[www.belaustegi.com](http://www.belaustegi.com)

**JATETXEA**

### MENUA

- Leongo zaldi zezina, Idiazagal gazta txirbilekin.  
- Maridaje ardoa: Mi Villa Tinto urteko ardoa.
- Txangurro eta itsaski entsalada, Jerez olio-ozpinarekin.  
- Maridaje ardoa: Olagosa, barrikan irakindako ardo zuria.
- Legatz trontzoa azafrai eta 6 Cepas ardo zuriarekin eginiko saltsan.  
- Maridaje ardoa: 6 Cepas ardo zuria.
- Foie, ondo eta mahaspasaz beteriko pularda, Viña Olagosa ardoz eginiko saltsan.  
- Maridaje ardoa: Viña Olagosa kriantza.
- Fruitu lehorrekin egindako bizkoxo harrotua, kafe eta txokolate zuri saltsarekin.  
- Maridaje ardoa: 6 Cepas ardo beltza.
- Kafea



**PREZIOA: 50 € + BEZ (10%)**

**LEKUA: Belaustegi Baserria**

**EGUNA: Abenduak 21, 21:00etatik aurrera**

# Jesus Mari Makazaga

**EUSKALTZAINDIAKO GRAMATIKA  
BATZORDEKO KIDEA**

Hautsak harrotuta dabilta Euskaltzaindian. Gramatika Batzordeko kideek dimisioa aurkeztu zuten joan zen astean, Zuzendaritzak batzordearekiko konfiantza galdu dela argudiatuta. Kargua laga dutenen talde horretan dago Jesus Mari Makazaga ere (Elgoibar, 1965). Albisteak oihartzun handia izan du, eta asteburuan, arazoa huts-hutsean akademikoa izan dela nabarmendu du Pello Salaburu batzordekideak. Euskaltzaindian bi talde “ez egituratu” egon badaudela aitortu du, baina ukatu egin du zenbait agerkaritan argitaratu dena: botere nahia izan dela dimisioa emateko arrazoietakoa bat. Batzordeek dituzten kompetentziekiko errespetua eskatu du Salaburuk, eta bat egin du Makazagak ere.



## “Gramatika Batzordea gutxiesteko eta ahultzeko asmoa serioa dela esan nahi du honek”

Euskararen Nazioarteko Egunean jakin genuen Euskaltzaindiako Gramatika Batzordeko kideek dimisioa eman zenutela. Taldean emandako dimisio hori arrazoitzeko orduan konfiantza kontuak aipatu zituen Pello Salaburuk. Zer gertatu da?

Gramatika Batzordeak ez du aurrera egiteko behar duen konfiantzarik ez estimaziorik Euskaltzaindiaren partetik, eta erabaki dugu egoera honek horrela dirauen bitartean ez dugula gramatikagintzan segituko. Dimisioaren berri euskararen egunean izatea ez genuen berriaz bilatu: aurreko egunean eman genuen dimisioa, euskaltzainen ostiraleko bile-raren osteko lehenbiziko lan-egunean.

**Irakuri dugu euskaltzain batek egindako es-**

kaera izan dela Euskaltzaindiako krisia leher-tarazi duena. Euskaltzain horrek Gramatika Batzordearen lan egitasmoari ohar bat egin omen zion, esanez gramatika erabilgarriago bat, laburrago bat, egin beharko litzatekeela. Zer du egitik? Zer duzu esateko honen inguruan?

Egia da hori, baina azken tanta izan da hori. Ez dugu zehaztapenetan sartu nahi, baina jakinarazi nahi dugu ez gaudela gustura egungo egoerarekin. Batez ere lan erabilgarriago, laburrago, didaktikoago hori noiz atera izan da kontua: guk genioen gramatika osoa eguneratu eta bildu ondoren egin behar zela (Hori da hizkuntza guztietan egin izan dena: lehenbizi lan osoa eta gero haren laburpena),

eta euskaltzain ohargileak zioen berehala atera behar zela; ez hori bakarrik, hala ere, haren asmoa zen lan hori Gramatika Batzorde-tik kanpoko gramatikariak egitea, eta hori ezin genuen onartu, gure ikergaia gramatika izanik.

**Euskaltzaindiaren barruan zein zen zuen orain arteko eginkizuna? Zein zen zuen lan egiteko modua, zein zure ardura?**

Euskararen Gramatika osatzea da batzordearen eginkizun nagusia. Azken 30 urteotan, *Euskal Gramatika*. Lehen Urratsak gramatikaren zazpi aleak osatu ditugu, inoiz euskal gramatikagintzan egin den lanik garrantzitsuena. Horretaz gain, euskara batuko morfologia eta sintaxi arloko arauen prestatana



egin izan dugu, bai eta Jagonet hizkuntza-zerbitzuko galderei erantzun ere.

Batzordekide guztien artean azertzen diren txostenak prestatzen ditugu batzordekideok, hainbat aldiz, azken idatzaldia osatu arte. Bestalde, batzorde-idazkaria naizen aldetik, bestelako lanak ere egokitzen zaizkit: bileren agiriak jaso, deiak egin, informazioa zabaldu, batzordea koordinatu, eginkizunen eta egingdakoen txostenak prestatu...

Maila handiko gramatikariak parte hartu dute batzordean: Iñaki Amundarain, Miren Azkarate, Beatriz Fernandez, Juan Garzia, Patxi Goenaga, Alan King, Itziar Laka, Celine Mounole, Jose Antonio Mujika, Beñat Oartzabal, Pello Salaburu... Eta lehenago, Laffite, Lino Akesolo, Haritschelhar, Patxi Altuna... Gure lanaren kalitatea dela eta, esan beharra dago Euskaltzaindiak aginduta inkesta bat burutu zuela SIADECOK 2008. urtean, eta Gramatika Batzordearen lanak izan zirela Euskaltzaindiako batzordeen artean ondoen baloratutakoak. Harrigarria da, beraz, hain ondo eta hainbeste lan egin ondoren Euskaltzaindiaren osoko bilkurak berak baztertzea guk aurkeztutako lan-proposamena, eta besteri eskaini nahi izatea guri dagokigun lan bat. Hori inoiz ez da gertatu Euskaltzaindian, eta nahikoa dela iruditu zaigu.

**Zuen dimisioaren ostean, hiztegitzako ardurak lagako zuela jakinarazi zuen Ibon Sarasolak, "bidegabekeria handia" egin zitzaizuela arrazoituta. Horrenbeste kargu-uzteren ostean, zein egoeratan gelditzen da orain Euskaltzaindia?**

Ez da egoera erosoan geratzen. Euren esku dago orain lehenago lan-girora itzultzea. Guk kontzientzia oso lasai daukagu. Ia urtebete egin dugu egoera salbatu nahian, benetan ahalegindu gara gauzak konpontzen, baina ezinezkoa izan da. Oraindik ez dugu sinesten puntu honetara iritsi beharra izango genuenik, baina zoritxarrez hala izan da.

**Adierazpen gogorrak egin ditu Ibon Sarasolak. Berak esan du bi ildo nagusi bereiztu direla Euskaltzaindian. Batetik, "mundu guztian bezala", arauemala litzatekeen akademia bat nahi dutenak eta bestetik "Euskaltzaindia euskaltzaleen elkarte bihurtu nahi dutenak". Nolakoa behar luke izan Euskaltzaindiak, zure ustez, eta nolakoa da eta zein funtzionamendu du gaur?**

Batzordeek beren lanak egiteko autonomia

## “Euren esku dago orain lehenago lan-girora itzultzea. Guk kontzientzia oso lasai daukagu”

izan behar dute, eta akademiaren konfiantza eta babesia. Akademia batean hori da garrantzitsua. Horrek ez du esan nahi guk nahi duguna egin behar dugunik ere, eta ez dugunik gure lanaren berri eman behar (urtero-urtero eman izan dugu egindako lanen berri, eta bi urtean behin egitasmoen berri). Zertarako izendatu gintuen Euskaltzaindiak Gramatika Batzorderako? Gero, justifikaziorik gabe gure lana kentzeko? Ez dugu ulertzen.

**Dimisioen harira, Andres Urrutiak esan du halakoak gertatzen direla beste akademietan ere, eta egoera zallagoak konpondu izan dituztela. Beste zenbaitzuren arabera, berriz, lehen ere izan dira arazoak Euskaltzaindian, baina inoiz ez gaur bestekoak. Zer diozu?**

Niri ez zait hala iruditzen. Berak baino denbora gehiago daramat Euskaltzaindian (23 urte), eta arlo akademikoan ez dut uste bizi duguna baino egoera zailagorik izan duenik Akademiak, ez behintzat bere agintaldian, ez Haritschelharrean ez eta Villasanterean ere, eta horiek urte asko dira. Beste Akademieta ere, nik ez dut halako egoeraren berri izan.

**Juan Luis Zabala BERRIARI kazetariak idatzi du: “Beti bitan banatu behar betikoa berriro bueltan berriro bistan berriro bizirik”. Ze bi talde daude? Zer da bata eta besteak eskatzen dutena edo nahi dutena?**

Nik dakidana da Gramatika Batzordeak eskatzen duena, eta da euskararen gramatikagintzan lasai eta konfiantza-giro batean lanean segitzea. Hori gerta ez dadin lortu dutenek esan beharko dute zer nahi duten, zeren bila dabilzan Euskaltzaindiaren batzorde historiko eta funtsezko bat horrela gutxietsiz.

**Euskaltzaindiak egitekoa duen hurrengo osoko bilkuran aztertuko ei du zuen dimisioa. Ikusten duzu konpontzeko aukerarik?**

Ni ez nago batere baikor. Egoera puntu honetaraino eramateko gauza izan badira, gure Batzordea gutxiesteko eta ahultzeko asmoa serioa dela esan nahi du, eta hemendik aurrera edozer gerta daitekeela sinesteko moduan nago, eta ez prezieski onerako.

Ainara Argoitia



Gramatika Batzordeak argitaratutako lana.

## ‘Erotik’ antzerkia estreinatuko du Taupada antzerki taldeak abenduaren 20an

22:00etan hasiko da emanaldia, Herriko Antzokian

**E**rotik atzezlanaren estreinatuko du Elgoibarko Taupada Antzerki Taldeak abenduaren 20an, Herriko Antzokian. Erakargarria eta zirrara eragiten duen antzezlanaren dela azaldu dute Eburne Lasak eta Jose Mari Larrañagak. Ehun minutuko iraupena du, eta toki itxi eta “kezka-garri” batean lekutu dute, psikiatriko batean, hain zuzen ere. Han ezer ez da dirudiena: “Gure protagonistek misterio, intriga eta abentura zoroak biziko dituzte, nahiz eta beraien nahia maitasuna lortzea besterik izan ez. Ezertxo ere ez da dirudiena; errealitateak, fikzioak, umoreak, absurdok eta esperpentoak pertsonaien portaera logikoarekin talka egiten dutenean sortzen da antzez-jokoa”.

Taupada Antzerki Taldea 1977an sortu zuten euskara eta kultura bultzatzeko hel-



buruarekin. Orduetik hona makina bat antzerki ekoizti eta antzeztu dituzte. *Erotik* izango da sortu duten formatu handiko 23. antzezlanaren.

Sarrerak aurrez jarriko dituzte salgai, Pitxintxun, eta egunean bertan ere eskuratu ahal izango dira leihatilan, zazpi euroan. Ikuskizuna 22:00etan hasiko da.

## ‘Ahotsak’ egitasmoan parte hartu dutenak eskertu dituzte



*Ahotsak.com* egitasmoa aurkeztu dute Udalak eta Badihardugu elkarteak, eta bide batez, eskerrak eman dizkiete egitasmoan parte hartu duten elgoibartarrei. Guztira, 70 herritarren lekukotasuna jaso dute, eta 1.216 pasarte inguru jarri dituzte sarean. Horretaz gain, elkarizketa horietatik, 255 pasarte transkribatu, eta 130 audio eta 360 bideo sareratu dituzte, ondare hori herritarren esku egon dadin. Material guztia [www.ahotsak.com](http://www.ahotsak.com) atarian kontsultatu daiteke.

### Euskarazko produktuen katalogoa banatu du Udalak

Euskarazko Produktuen Katalogoaren edizio berria kaleratu du Elgoibarko Udalak, hizkuntzaren transmisioan eragiteko eta seme-alabentzat lagungarri izango diren euskarazko produktuen berri emateko. 1.900 ale banatu dituzte, ikastetxeetan, eskulategietan, liburutegian eta jostailu eta liburu dendetan. Katalogoa sarean kontsultatzeko aukera ere badago: [www.katalogoa.org](http://www.katalogoa.org) webgunean edota Elgoibarko Udalaren [www.elgoibar.org](http://www.elgoibar.org) webgunean, hain zuzen, Euskara Sailaren atalean.

### ‘Olentzeroren Ametsa’ antzerkia, hilaren 22an

*Olentzeroren Ametsa* antzerkia ekarriko du Kultura Sailak hilaren 22an. Herriko Antzokian izango da, 16:30etik aurrera. Sarrerak aurrez erosteko [www.kutxa.net](http://www.kutxa.net) ataria erabili behar da, baina, egunean bertan ere jarriko dituzte sarrerak salgai leihatilan.



# Pirritx, Porrotx eta Marimototsek 'Bizipoza' ekarriko dute urtarrilaren 2an

Bi saio eskainiko dituzte, Herriko Antzokian

Urtarrilaren 2an etorriko dira Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak Elgoibarrera. *Bizipoza* lana aurkeztuko dute, bi saiotan. 16:30ean izango da lehenengoa, eta 18:30ean, bigarrena. Sarrerak abenduaren 16tik aurrera erosiko ahal izango dira Internetez, [www.kutxa.net](http://www.kutxa.net) helbidean. Helduen sarrerak 10 euro balio ditu, eta umeentzako sarrerak, 8 euro. Informazio gehiago 943 531 319 telefonoan.

Bizipoza lanean elkartasunaren gaia lantzen dute pailazoek. Txernobyletik datorren laguna jaso nahi dute aireportuan, baina furgonetahondatu zaie, eta garaiz iritsiko ez oten diren beldur dira. Azkenean, arazoak gaindituko dituzte, jasoko duten laguntzari esker.



## 'Euskararen Espektakulue' aurkeztuko du Oihan Vegak gaur, Herriko Antzokian

Euskararen egoerari buruzko bakarrizketa aurkeztuko du gaur iluntzean Oihan Vegak. Umorea eta sarkasmoa erabiliz, euskararen inguruan erreflexioa egiteko aukera eskainiko du, musikaz eta irudiz lagunduta. Era umoretsuan, telebistako filmak berreskuratuko ditu, euskal zinearen azterketa ironikoa egiteko. 20:30ean hasiko da emanaldia, Herriko Antzokian. Sarrerak 5 euro balio ditu.

## Jaiotza lehiaketa, asteburuan

Parrokiako Katekesiak haur eta familientzako jaiotza lehiaketa antolatu du astebururako. Materiala libreza izango da, baina jaiotzaren neurria 75x40 zentimetrokoa izan beharko da gehienez. Interesatuak biharko entregatu beharko dituzte lanak Katekesiko lokalean, 11:00etatik 12:30era. Domekan, bestalde, San Bartolome parrokiako arkupeetara eraman beharko dira lanak, 11:00etarako. Arkupeetan jarriko dituzte ikusgai eta, meza ondorenean egingo dute sari banaketa. Gero, Zubiaurre-Murua familiak lagatako lokalean jarriko dituzte jaiotzak ikusgai, Errosario kaleko 7an.

## LHko ikasleentzako ekintzak, neguko oporretan

Lehen Hezkuntzako ikasleentzako bi arratsalde-pasa eta egun-pasa bat antolatu dituzte Atxutxiamaikak eta Ludotekak neguko oporraldirako. Abenduaren 26rako eskalada saioa prestatu dute, hilaren 30ean bestalde, arbasoen deia jarraituz, Debabarreneko historia eta ondarea ezagutzeko irteera egingo dute. Urtarrilaren 2an, beriz, Aiako Harrietara egingo dute familia irteera. Informazio gehiago 943741626 telefonoan edo [www.elgoibarkoizarra.com](http://www.elgoibarkoizarra.com) atarian.

## Abenduaren 20an jarriko dute martxan Parrokiako jaiotza



Elgojaitza taldeak abenduaren 20an jarriko du martxan Parrokiako jaiotza. 40 metro koadroko neurria izango du jaiotzak, eta 33 figura ikusi ahal izango dira mugimenduan. Eguna eta gaua bereiztuko dituzte, benetako arrainak jarriko dituzte errekan, eta beste hainbat apaingarri ere izango dira. San Anton egunera arte egongo da zabalik, urtarrilaren 17ra arte, alegia.

## Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Amets Arzallus, Igor Elortza eta Onintza Enbeita ekarriko ditu kantura Elgoibarko Izarrak


Hilaren 27an izango da Eguberrietako bertso-saioa, eta astelehenean jarriko dira salgai sarrerak

**P**unta-puntako kartela osatu du aurtenera ere Elgoibarko Izarra kultur elkarteak Eguberrietako bertso-saiorako. Bost bertsolari etorriko dira kantura, tartean domeka honetan BECen jokatu den final handian txapela lortzeko lehian izango diren hiru finalista. Abenduaren 27an izango da bertso-saioa, Elgoibarko Herriko Antzokian, 22:00etatik aurrera.

Bertso saiorako sarrerak datorren astelehenean, hilaren 16an, jarriko dituzte salgai, Elgoibarko Izarra kultur elkartearen bulegoan (Ubitarte kalea, 2). Abenduaren 16tik 20ra bitartean, elkarteko bulegoan eskuratu ahal izango dira sarrerak, eta abenduaren 23tik aurrera Pitxintxu opari-

dendan egongo dira saltzen, Eguberrietako oporraldia dela-eta itxita egongo delako Elgoibarko Izarraren bulegoa. Hamar euroan jarri dituzte sarrerak saltzen (Elgoibarko Izarrako bazkideentzat bederatzi euroan)

Igor Elortza, Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Onintza Enbeita eta Amets Arzallus. Horra hor bertsolarien aurtengo kartela. Aurtenera, baina, berrikuntza bat ere izango da. Izan ere, Aitor Nova eta Nahia Membrillera musikari elgoibartarrek ere parte hartuko dute bertso-saian. Bost bertsolarien lana musikaz janztea izango da haien egitekoa. Gai jartzaile lanak Uxue Alberdi elgoibartarrak egingo du.



## Euskarak 365 egun bete zituen joan zen abenduaren 3an



*Euskarak 365 egun.* Horixe izan da aurtenera Euskararen Nazioarteko Egunean Elgoibarren eta Mendaron bazter guztietan entzun den leloa. Euskararen erabilera ez dela urtean egun bakarrera mugatu behar aldarrikatu zuten herriko eragileek, jai-giroan. Goizean, 'Eman martxa euskararari, mundiala da-eta' lelopean kalejiran irten ziren Elgoibarren Herri Eskolako umeak, eta ondoren Jon Urbietak DJ zumaiarrek jarritako musikaren erritmorik dantzatu zuten ume zein nagusiek Lekuederren. Handik plazara joan ziren gero eta han Elgoibar Ikastolako eta Institutuko ikasleekin bat egin zuten, euskarak 365 bete zituela elkarrekin aldarrikatzeko. Ikasleek manifestua irakurri zuten udaletxeko balkoitik eta argazki erraldoi bat osatu zuten guztiek elkarrekin.

Eguneko ospakizun nagusia, baina, arratsaldean izan zen, Kalegoen plazan. Elgoibarko hainbat eragileetako ordezkariak bat egin zuten euskararen suaren bueltan. Ekitaldi xumea, baina ikusgarria izan zen herrigintzan diharduten talde eta eragileak euskararen aldeko borrokan elkarrekin ikustea. Konpromisoa, ilusioa eta elkarlanean euskararen plaza irabazteko gogoia islatu zuten guztiek, suaren bueltan.

Mendaron, bestalde, bazkalostean egin zuten jaiak ikastolako haurrek, ikastetxeko patioan bertan. Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako haurrek kantuan eta dantzaz jardun zuten, mitologia gai hartuta.



## Abenduaren 31ko 00:01ean hasiko da San Silvestre lasterketa

2006an hasi ziren San Silvestrea antolatzen Elgoibarren

Urgazi Triatloi taldeari lekukoa hartu dio aurten Mintxeta atletismo taldeak San Silvestrearen antolakutzan, eta berrikuntzekin dator aurtengo lasterketa: Abenduaren 31ko 00:01ean egingo dute, eta Europako lehen San Silvestre lasterketa izango dela uste dute antolatzaileek. Dortsalekin egingo dute korrika, hau da, denborak neurtuko dituzte. Era berean, garaikurrak ere egongo dira, eta parte hartzaile guztiei txokolate beroa banatuko diete probaren amaieran. Izenematea bi euro kobratuko dute, baina lerro hauek idazteko orduan zehaztu gabe zuten aurre-salmenta nola eta non egingo duten. Ibilbidea ere erabat zehaztu gabe daukate oraindik, baina bost bat kilometrokoa izango dela aurreratu dute.

### 2006an estreinako lasterketa

2006ko Urte Zahar Egunean antolatu zuen estreinakoz San Silvestrea Elgoibarren, eta 156 lagunek hartu zuten parte. Hurrengo hiru urteetan ere hainbat lagunek agurtu zuten urtea antxixika, baina



2010ean eta 2011n ez zuten lasterketarik antolatu, Gabon Zahar Feriarekin bat egin zuelako urteko azken egunak. 2012an ez zen inor animatu proba antolatzera, eta hala ere, 70 bat lagunek hartu zuten parte.

### Murkaikupeko Pilota Txapelketako finala, bihar

Aiastiako jaien barruan antolatutako Murkaikupe Pilota Txapelketa iritsi da amaierara, eta bihar jokatu dute final nagusia. Loiola anaiek Bioin eta Igor izango dituzte aurrez aurre. 19:00etan izango da norgehiagoka.

### Mendaroko Hour Krosa, abenduaren 21ean

Mendaroko Txirriindulari Elkartek herriko haurrentzako Hour Krosa antolatu du abenduaren 21erako. Mendarozabalena egingo dute lasterketa, eta 2002tik 2008ra bitartean jaiotako haurrek hartuko dute parte. 17:00etan hasiko da proba. Izenematea doan izango da, eta parte hartu nahi dutenek egunean bertan eman beharko dute izena, lasterketa hasi baino ordu erdi lehenago. Lasterketa amaitzen denean dominak eta gozokiak banatuko dizkiete parte hartu duten ume guztiei.

## Iñaki Azurmendik irabazi du Elgoibarren jokatu den Euskadiko Aizkora Txapelketa Nagusia



Euskadiko Aizkora Txapelketako final nagusia jokatu zuten domekan Elgoibarren, eta kiroldegia jendez gainezka egon zen. Iñaki Azurmendi beasaindarrak ezustekoa eman zuen, sendotasunaren bidetik guzti-guztiak atzean utzita. Orain bi urte egin bezala, bi besoak altxatuta amaitu zituen lanak gipuzkoarrak. Aitzol Atutxa dimarra sailkatu zen bigarren, oso saio ona eginda, eta Floren Nazabal faborito nagusia hirugarren, bererik eman ezinda. Joxemari Olasagasti, Unai Otaño eta Jon Irazu sailkatu ziren atzetik.


Atzetik aurrerako lana egin zuen Azurmendik, azken postuan zihoalako lehen enborrean (Olasagastik ekin zion buru-buruan finalari). Baina zarpigarraren enborrean buruan jarri, eta aldea handituz joan zen amaierara arte. Bigarren posturako lehia izan zen dotoreena hortik aurrera. Nazabal hamabost segundo aurretik zen bederatzigarren enborra ebakita, baina bizi amaitu zituen lanak Atutxak, eta 45 segundoko aldea atera zion, Nazabali, faborito nagusiarri.

## Izaskun Estibaritzek eta Sanlok jasoko dituzte kirol arloko Berdintasun sariak

Bihar izango da sari banaketa, 17:00etan kiroldegian

Izaskun Estibaritzek eta Sanlo eskubaloi klubak jasoko dituzte kirol arloko Berdintasun sariak. Kirol arloko estamentu guztietan emakumeen partaidetza lortzeko egindako ekarpen esanguratsuak goraiatzeko antolatu du Elgoibarko Udalak Berdintasun Sariak. Bi sari banatu dituzte, banakoa bata, eta taldekoa, bestea. Herritar eta erakundeek izan dute hautagaiak aurkezteko aukera, eta ondoren, epaimahaiak aukeratu ditu saridunak. Izaskun Estibaritzek 27 urteko ibilbidea egin du emakumeentzako irteerak antolatzen. Inguruko mendiak ez ezik Alpeetako eta Goi Atlaseko gailurrak ere igo dituzte, eta baita Kilimanjaro ere. Horrez gain, New Yorkeko eta Londreseko maratoiaren ere parte hartu izan du, eta beste lasterketa garrantzitsu batzuetan ere bai. Epaimahaikideen ustez, emakume eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko sentsibiltatea erakutsi du beti.

Sanloren kasuan, 140 emakume inguru eskubaloian hazten eta hezten ari da, alebinetatik seniorretaraino. Neskak kirolera erakartzeko eta emakumeen kirola sustatzeko antolatutako ekintzak nabarmendu ditu epaimahaiak: igoera faseak, partida bereziak... Era berean, emakumeek klubean betetzen duten lekua ere hartu dute kontuan saria emateko orduan: zuzendaritza taldean, entrenatzaile postuetan edota ordezkaritza lanetan ere badihardute emakumeek Sanlok.



### Euskadi eta Txileko senior neskek eskubaloi partida jokatu dute bihar



Euskadiko eta Txileko eskubaloi selekzioek partida jokatu dute bihar, Elgoibarren. Hainbat urtetako etenaldiaren ostean, Euskadiko Eskubaloi Selekzioak Eguberrietako eskubaloi partida hau berreskuratu du berriz, eta partida hori Elgoibarren jokatzeko erabaki dute. Jose Manuel Ruiz da Euskadiko selekzionatzailea, eta oraingoa ez du Elgoibarko jokalaririk aukeratu bere taldea osatzeko. Partida 17:00etan izango da, Olaizaga kiroldegian. Sarrerak bost euro balioko ditu (umeentzako, bi euro). Informazio gehiago:

[www.elgoibAREN.net](http://www.elgoibAREN.net)

### Emakumeak eta kirola gaia izango dute aztergai aurtengo kirol federatuen sari banaketa ekitaldian

2013ko Kirol Federatuen Sariak banatuko dituzte hilaren 18an, 19:00etatik aurrera, Musika Eskolako auditorioan. Sari banaketaren aurretik kirolari buruzko mahaingurua egingo dute, *Berdintasuna eta kirola* gaia lantzeko, eta ondorengoek hartuko dute parte:

- Matxalen Ziarsolo (Ermua). Bera Bera eskubaloi taldeko kapitaina. Hamaika aldiz internazionala izandakoa. Liga bat, Erreginaren hiru Kopa eta Superkopa bat irabazi ditu.
- Patri Espinar (Usansolo). Gipuzkoako Pilota Federazioko *Emakumea Pilotari* proiektuko arduraduna, eta Zarautz Kirol Elkarte-ko pilota koordinatzailea.

*kumea Pilotari* proiektuko arduraduna, eta Zarautz Kirol Elkarte-ko pilota koordinatzailea.

- Marta San Martin (Elgoibar). Epaille eta Ordezkaritza Teknikaria Euskadiko Triathloiko Federazioan. Epaille nazionala da, eta nazioarteko epaille ikastaroa burutzen ari da.
- Maria Gallastegi (Eibar): Sorluzeko udal kirol teknikaria. Txirridulari izan zen Debabarrena taldean. Giroa, Tourra eta Emakumeen Biran parte hartu izan du eta Euskal Herriko txapeladuna ere izan da.



# Domekan hasiko da Nazioarteko Xake Txapelketa

Gustavo Barrenetxea elgoibartarrak hartuko du parte

**A** benduaren 15etik 21era bitartean jokatuko dute aurtengo Nazioarteko Xake Txapelketa. Domekan egingo dute txapelketaren aurkezpena 12:30etik aurrera, Pleno Aretoan, eta partidak arratsaldean hasiko dira. Aurtengo berezitasunen artean, xakelari elgoibartar baten izena ageri da partaideen artean: Gustavo Barrenetxea. Elgoibartar batek txapelketa honetan parte hartuko duen estreinako aldia izango da, eta antolatzaileen ustez, are erakargarriagoa bihurtuko du horrek txapelketa elgoibartarrentzat.

## Izen handiko jokalaria

Elgoibartarrek batera, izen handiko xakelariak izango ditugu aurtengo ere Elgoibarko Txapelketan: Christian Cruz (Peru), Daniel Alsina (Katalunia), Aleksa Atrikovic (Serbia), Tanguy Ringoir (Belgika), Dragan Paunovic (Serbia), Oleg Romanishin (Ukraina), Angel Arribas (Madril), Alejandro Franco (Euskal Herria), eta David Astasio (Euskal Herria).



## EMAITZAK

### FUTBOLA

- Elgoibar 0 – Orioko 1 (Erreg.)
- Elgoibar 1 – Eibar 4 (Neskak)
- Euskalduna 1 – Elgoibar 1 (Jub. A)
- Elgoibar 4 – Eibar 1 (Kad. A)
- Anaitasuna 1 – Elgoibar 3 (Inf.)

### ESKUBALOA

- Urdaneta 23 – Alcorta Elg. 25 (Sen. mut.)
- Beti Onak 28 – Lauko Elg. 22 (Sen. nesk.)
- Pneumax Elg. 24 – Aloña Mendi 27 (Kad. mut.)

### ARETO FUTBOLA

- Concepto Egile Elg. 5 – Colo Colo 4 (2B)

## AGENDA

### FUTBOLA (Mintxetan)

#### Zapatua, 14

- 10:00 Elgoibar – Iintxa (Inf. txiki)
  - 12:00 Elgoibar – Burumendi (Kad. B)
  - 16:30 Haundi – Beasain (3. maila)
  - 18:30 Elgoibar – Amaikak Bat (Jub.)
- Domeka, 15**
- 11:15 Elgoibar – Orioko (Aleb.)
  - 12:30 Elgoibar – Burumendi (Inf.)

### ESKUBALOA (Kiroldegian)

#### Zapatua, 14

- 13:00 Deca Elg. – Aiala (Inf. mut.)
  - 17:00 Euskadi – Chile (Sen. nesk.)
  - 19:30 Alcorta Elg. – Tolosa (Sen. mut.)
- Domeka, 15**
- 9:45 Bankoa Elg. – Amenabar (Inf. mut.)
  - 11:00 Pneumax Elg. – Egia (Kad. mut.)
  - 12:30 Beristain Elg. – Urola (Jub. mut.)

## 2014ko Mugertza Krosak badu kartela

Urtarrilaren 12an jokatuko da Nazioarteko Mugertza Krosa, eta Mintxeta atletismo taldeak aukeratu du dagoeneko lasterketa iragartzeko kartela. Antonio Serrano (La Solana, Ciudad-Real, 1965) atletak azkenean Elgoibarren irabazi zuenetik 25 urte pasatu dira, eta hari egingo diote omenaldia aurtengo kartelean. Lerungo zirkuito zaharrean atera zuen argazkia Jesus Insaustik.



## Eskubaloi ikastaroa eskainiko du Sanlok Mendaron

Eskubaloi ikastaroak eskainiko ditu Sanlok Eguberrietan, Mendaron. 2003, 2004 eta 2005ean jaiotako umeentzako saioak izango dira, eta besteak beste, eskubaloi munduko jokalaria eta entrenatzaileekin entrenatzeko aukera izango dute. hilaren 23an Egia eta Baionako Aviron taldeetan entrenatzaile aritutako Goyo Villaria etorriko da Mendarora. Abenduaren 26an, Imanol Alvarez Bera-Bera taldeko entrenatzailearekin jokatuko dute, eta 27an, berriz, Jose Ignazio Altube Ereintzako entrenatzailearen txanda izango da. Entrenamenduak 10:30ean izango dira, Ikastolako jolastokian. Era berean, Bilboko PIN parkera joango dira egunpasa, eta urtarrilaren 4an Elgoibarko neska-mutilekin jokatuko dituzte partidak, Elgoibarko kiroldegian. Ikastaroak eta txangoak 15 euro balio dituzte. Interesatuak abenduaren 19ra arteko epea dute izena emateko, [sanlolatxo@gmail.com](mailto:sanlolatxo@gmail.com) helbidera idatzita edo 629 404 782 telefonora deituta.

**LANA**

**ESKAERA**

- Emakume arduratsua behar da interna bezala lan egiteko  
☎ 669 339 529 (arratsaldez deitu)
- Neska lan bila: Umeak zein adinekoak zaintzeko prest. Orduka.  
☎ 690 925 929
- Neska lan bila: Umeak zein adinekoak zaintzeko prest. Geriatria ikasketak ditut. Garbiketak ere egingo nituzke.  
☎ 666 396 317 / 943 530 908
- Gizona lanerako prest. Adinekoak zaintzen esperientzia. Gauetz lan egiteko prest. Erreferentzia onak.  
☎ 608 820 954 / 943 744 429
- Emakumea garbitzaile lanetarako edo adinekoak zaintzeko prest. Esperientzia. Sukaldari laguntzaile moduan ere egingo nuke lan.  
☎ 616 457 254
- Emakumea garbitzaile lanetarako edo adinekoak zein umeak zaintzeko prest.  
☎ 688 467 147
- Emakumea adinekoak zaintzeko prest. Interna ere bai.  
☎ 631 053 696
- Emakumea garbitzaile lanetarako edo adinekoak zaintzeko prest. Interna.  
☎ 602 865 726
- HHko hezitzaile gaztea umeak zaintzeko prest.  
☎ 635 588 605 (txaso)
- Magisteritzako ikasleak klase partikularrak ematen ditu. LH eta DBH1 eta DBH2.  
☎ 635 588 605 (txaso)
- Emakumea eskaintzen da lanerako: umeak edo adinekoak zaintzeko, garbiketara lanak egiteko... Edozertarako prest. Orduka edo interna.  
☎ 678 373 716

- Emakume euskalduna eskaintzen da etxeko lanak egiteko edo umeak zein adinekoak zaintzeko. Orduka. Asteburuetan ere bai. Esperientziaduna.  
☎ 628 524 420
- Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko edo etxeko lanak orduka egiteko.  
☎ 619 041 821 / 943 744 033
- Emakumea eskaintzen da haurrak zein nagusiak zaintzeko eta portalak garbitzeko.  
☎ 686 052 084
- Mutila eskaintzen da garajeak, elkarteak edo portalak garbitzeko. Esperientziaduna.  
☎ 692 332 871
- Frantsesa, latina eta euskarazko klaseak ematen ditut.  
☎ 617 114 185
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Esperientziaduna. Edozein ordutegi.  
☎ 618 814 064
- Garbiketara edo zaintza lanak egiteko prest nago. Elgoibarren bizi naiz, eta inguruko herrietan ere lan egingo nuke.  
☎ 617 043 058
- Emakume gazte eta euskalduna, asteburuetan lan egiteko prest. Zerbitzari lanak, garbiketara lanak...  
☎ 687 448 287 (Elder)
- Emakumea lan bila. Nagusiak edo umeak zaintzeko edo sukaldari laguntzaile lanak egiteko prest.  
☎ 606 354 982

**ETXEBIZITZAK**

- Pisu alokairuan. Bi logela, egongela handia, sukaldea, igogailua, terraza eta ganbara. Altzariekin.  
☎ 646 581 666
- Elgoibarren bizi den gizon bat alokairuan bizitzeko pisu bila dabil. 400-500 euro ordaintzeko prest.  
☎ 659 093 967

**LOKALAK ETA GARAJEAK**

- Garaje itxia salgai Jausoro plazan. 16m2. Irteera Txanakoako zubira. 20.900 euro.  
☎ 685 707 879
- Kartutxo taberna alokagai, gazteentzako lokal moduan. Intsonorizaturik. Altura biko biltegia, bi komun. San Frantzisko kalean.  
☎ 615 177 037 (whatsapp ere bai)

**BESTELAKOAK**

- Autoa elkarbanatuko nuke, Markinara joateko. 7:30ean Elgoibartik irten, eta 15:00etan itzultzeko. Astelehenetik ostiralera.  
☎ 676 547 283
- Mac etxeko ordenagailu portatila galdu dut Toletxe inguruan. Lan asko eta garrantzitsuak ditut. Aurkitu duenak buelta dezala. Ordaina emango diot.  
☎ 667 271 480 (Maria)
- Sakeleko telefono bat aurkitu nuen Herri Eskolan.  
☎ 650 280 686
- Gas estufa behar dugu, familia behartsu bati emateko.  
☎ 943 740 226
- Baltasar Pilotazale Elkarteak bazkide izan nahi dutenentzat hainbat plaza ditu. Bazkide egiteko edo informazio gehiagorako ondorengo helbidera idatzi: [baltasarpilotazale@gmail.com](mailto:baltasarpilotazale@gmail.com)



**P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar**  
☎ 943 743 140 - [rosapf@telefonica.net](mailto:rosapf@telefonica.net)



**- Gure komunitatean baditugu estatutu batzuk, baina bizilagun batzuek aldaketak egin nahi dituzte uste dutelako badirela gai batzuk estatutuetan jaso gabeak, eta horrek arazoak sortzen dituela. Aldiz, beste bizilagun batzuk ez daude konforme eta dagoenatan utzi nahiko lituzkete estatutuak. Aldaketa horiek egiterik izango genuke bizilagun batzuk kontra egon arren?**

Etxe-jabeen batzordean estatutuak aldatzea erabaki dezakete bizilagunek. Horretarako, baina, aho batez onartu behar dute denek. Bilerara agertu ezin diren etxe-jabeek egin nahi diren aldaketen berri eman behar zaie, akta bidez. Bizilagun horiek akta jasotzen dutenetik hilabeteko epea dute baietza edo ezetza emateko. Tarte horretan erantzungo ez balute, bileran erabakitakoaren alde daudela interpretatuko da.

**Gomendioa: Bilera horretarako deialdia egiten denean, gai-ordenean garbi esan beharko da estatutuak aldatu nahi direla eta egin nahi den aldaketa zein den ere zehaztu beharko da. Era berean, estatutuen kopia bana ere eman beharko zaie. Estatutuetan egindako aldaketak Jabetza-Erregistroan erregistratu beharko dira gero, eraikin horretako etxebizitzaren bat salduko balitz, etxe-jabe berria estatutuetan jasotakora lotuta gelditu dadin.**

**ROSA Mª PINTADO:** Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749







• Zorionak, **Adrian**, hila-  
ren 3an 12 urte egin  
zenituelako. Muxu as-  
ko gurasoen partez.



• Zorionak, gure etxe-  
ko **printzesari!** Zelan  
pasatzen den denbora!  
Urteko bat! Muxi pila  
bat izeko-osaba, aiton-  
amona eta bereziki, bi-  
rraiton-amonen partez.



• Zorionak, **Uxue**, as-  
teartean 3 urteko bete  
zenituelako. Muxu  
handi bat gurasoen eta  
bereziki, Agurtzane eta  
Eriken partez.



• Zorionak, **Hegoa**, as-  
telehenean 3 urte bete  
zenituelako.



• Zorionak, **Haritz**, hila-  
ren 3an zure urtebete-  
tze eguna izan zelako.  
Familiako partez.



• Zorionak, **Nahial** Gu-  
re etxeke printzesak  
urteko bat bete du!  
Muxu handi bat, biho-  
tza, familiako guztien  
partez.



• Zorionak, **Irigo**, atzo  
8 urte bete zenituela-  
ko. Muxu handi bat fa-  
miliako guztien partez.



• Zorionak, **Urko**, aste-  
lehenean 8 urte egingo  
dituzulako, txapeldun!  
Muxu handi bat fami-  
liako eta bereziki,  
Iratiren partez.




• Zorionak, **Gorka**,  
abenduaren 6an 11 ur-  
te egin zenituelako.  
Etxeko guztien partez.



• Zorionak, **June**, igan-  
dean 5 urte egingo di-  
tuzulako. Familiako  
partez, ondo pasa!



• Zorionak, **Ane**, aste-  
azkenean 7 urte bete  
zenituelako. Etxeko  
partez, muxu erraldoi  
bat.



• Zorionak, **Beñat**, zure  
hirugarren urtebetetze-  
an. Etxeko, eta be-  
reziki, Maddi eta Gara-  
ziren partez. Ondo os-  
patu eguna!



• Zorionak, **Elene**, hila-  
ren 9an 6 urte egin ze-  
nituelako. Muxu potolo  
bat familiako partez.




• Zorionak, **Nora**, zure  
5. urtebetetzean. On-  
do pasa laguntxo eta  
senideekin. Guztien,  
eta bereziki, Roke eta  
Markelen partez.



• Zorionak, **Sarai eta Danell** Urteko azkenak,  
baina zuena ere iritsi da! 15 eta 9 urte egin di-  
tuzuelako, zorionak.



• Zorionak, **bikotea!** 8 eta 5 urte dagoeneko!  
Muxu potolo bat denon partez. Gogoratu, ilar-  
giraino eta buelta, mila aldiz!



• Zorionak, **Maria eta Oihan**, astelehenean 11  
eta 2 urte egingo dituzuelako. Etxeko partez.

## TXILLARRE EKO

1992tik nekazaritza ekologikoan Basemiko produkuen  
salmenta zuzena eta etxeko banaketak

Astelehena 8:30 – 13:00 17:00 – 20:00	Asteartetik ostiralera 8:30 – 13:00 18:00 – 20:00	Larumbata 8:30 – 13:00
---	---	---------------------------

**Mugikorra:**  
635 008 496

Ekoizpen ekologikoa - Producción ecológica  
ESTAZ OLIK  
BUENOS POR NATURALIZA  
EKO

p.ekologikoak@gmail.com  
www.txillarre.es

## 13 barixakua

### Bakarriketa

20:30 'Euskararen espektakulue'

Oihan Vegak aurkeztuko du, Herriko Antzokian.

### Zine Forum

21:30 'Caramel'

Kafea pastekin hartuko dute lehenik, eta ondoren filma ikusiko dute. Loredi Salegik dinamizatuko du saioa.

## 14 zapatua

### Skitaldia

13:00 Tantz tanta

Preso eta iheslarien eskubideen alde, Kalegoen plazan.

### Eskola-kirola

16:00 'Xake txapelketa'

Zubi Ondo xake taldearen egoitzan.

### Kirola

17:00 Eskubaloi partida

Euskadi-Txile. Senior nesken partida, Kiroldegian.

## 15 domeka

### Kirola

9:30 Mendi irteera

Ikastolako familiek antolatuta, Irimo mendira egingo dute irteera. Gaztetxe aurreko aparkalekuan batuko dira.

### Lehiaketa

10:30 Jaiotza lehiaketa

Elizako arkupeetan jarriko dituzte ikusgai. Meza ostean egingo dute sari banaketa.

### Kultura

16:30 Oliver magoa

Herriko Antzokian.

## 16 astelehena

### Arte tailerra

17:00 Iberiar Penintsulako mitoak

Haizeak antolatuta, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

## 17 martitzena

### Tailerra

18:00 Literatura

Haizeak antolatuta, *Un árbol crece en Brooklyn* liburua landuko dute, liburutegian.

## 18 eguaztena

### Kirola

19:00 Kirol Sariak

Kirol Federatuaren urteko sariak banatuko dituzte, musika eskolan.

## 19 eguena

### Eguberriak

15:00 / 19:00 Ikastolako jaialdia

Lehen saioa ikasleentzat izango da, eta bigarrena, gurasoentzat. Herriko Antzokian.

## 20 barixakua

### Eguberriak

20:00 Parrokiako jaiotza

Elgojaitza taldeak inauguratuko du.

### Musika

20:00 Musika Eskolako

kontzertua

Musika Eskolako ikasleek eskainiko dute, Parrokian.

### Antzerkia

22:00 'Erotik'

Taupada antzerki taldeak lan berria taularatuko du, Herriko Antzokian.

ZINEA

«Captain Phillips»

14, zapatua:  
19:00/22:15

15, domeka:  
19:00/22:15

16, astelehena:  
21:30

## GUARDIAK

## BOTIKA ORDUTEGIAK

9:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

### Egunez

9:00 - 22:00

13	Etxeberria
14	Fernandez Goizez: Barrenetxea
15	Fernandez
16	Yudego
17	Zabaleta
18	Barrenetxea
19	Ibañez
20	Garitaonandia

### Gauetz


22:00 - 9:00

Etxeberria
Barrenetxea
Barrenetxea
Yudego
Barrenetxea
Barrenetxea
Garitaonandia
Garitaonandia


**Fernandez** Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro) - Tel: 943 756 142

**Ibañez** Rekalde, 1 (Soraluze) - Tel: 943 751 638

**Zabaleta** Kalebarren, 9 (Soraluze) Tel: 943 751 384



Eguberrietako ekintzetan izena emateko azken eguna abenduaren 19a



Eguberrietako programaketa berezia prest daukagu!"





# GEURERA ITZULI

Bertako eta garaiko produktuen kontsumoa berreskuratzeko garaia da, modu jasangarrian ekoiztutako elikagaiak. Guztioi mesede egiten digun kontsumitzaile eta ekoizlearen arteko harreman zuzena. **Gure herriaren sustraiak.**

[www.bertakoaetagaraikoa.net](http://www.bertakoaetagaraikoa.net)



**Gorka Lete  
Mendibitzu  
Ekologikoak**  
Txekor eta moxal haragia  
zein ardi gazta ekologikoa  
zuzenean saltzen ditu.

# VITALDENT

Egin bakeak dentistarekin

Orain badakit  
inoiz ez dela berandu  
irribarre polit bat  
edukitzeko

Ortodontzian  
espezialistak

RPS 49/12



**EIBAR**  
San Juan kalea, 7  
**943 82 18 85**